

GAIA: ORDIZIA, HIRI HEZITZAILEA • ESPERIENTZIA: ESKOLA AGENDA •
EKARPENAK: JOSEBA SARRIONANDIA • GALDEIDAZUE: JUANA MARI
MAGANTO • UNTZI MUSEOA • ATZEKO ATETIK: PAUL BILBAO

hh
hik hasi

151

4 EURO • 2010EKO URRIA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



ELKARRIZKETA

Jaione Apalategi

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea


Heldu literaturari

www.elkarargitaletxea.com

*Lehen irakurleak
(letra larriz idatziak)*


MAMU MALTZURRAK

Enric Larreula • Joan Antoni Poch



M. Àngels Ollé • Pilarín Bayés

NIRE TXOLARREA



Picanyol
OT aztia. AZTIAREN ETXEA



Picanyol
OT aztia. SAFARIA



*Lehen irakurleak
(letra larriz idatziak)*

BESTE GU

Asier Mendoza • Ivan Maba



+12 urte

Xabier Mendiguren • Patxi Gallego
BUELTA BAT AITONTXUAREKIN



+10 urte

elkar

aurkibidea



8
gaia

ORDIZIA, HIRI HEZITZAILEA

Euskal Herrian bada hainbat herri eta hiri "hiri hezitzaile" gisa antolatzen hasia dena. Orain arte egitasmo hori Iruñean, Donostian, Gasteizen, Bilbon, Baionan, Barakaldon eta beste hainbat hiri edo herri handitan garatu bada, duela hiru urte Ordizia (Gipuzkoa) herrian abiatu zen esperientzia.



15
elkarrizketa

JAIONE APALATEGI

Urte asko daramatza Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakasle euskaldunak prestatzen. Pedagogian doktorea da eta ikerketa ugari egin ditu hezkuntzaren antolaketaren gainean.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ORDIZIA, HIRI HEZITZAILEA
ESPERIENTZIA

16 elkarrizketa

JAIONE APALATEGI

24 esperientziak

Eskola agenda: kulturaren eta hizkuntzaren transmisio eta komunikaziorako bitartekoa.

26 ekarpenak

Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako. *Joseba Sarrionandiaren* ipuin laburrak, mikroipuinak.

32 galdeidazue

Zer emozioak sustatzen dute, eta nola, pertsonaren garapen egokia?

Juana Mari Maganto

35 berriak

40 nora joango gara?

Untzi Museoa

42 Atzeko atetik

Paul Bilbao

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urreza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko eta elkarrizketako irudiak: Hik Hasi. Gai nagusiko irudiak: Joxe Garmendia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2010-09-20). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,
hezitzaileentzat ona da
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta
HIK HASI egitasmoa
bermatu



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitez!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitaratzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

urria

Aholkurik ez du inork beretzat eta bai besteentzat



Hezkuntzan inbertitzen denak, oro har, onurak omen dakartza beste esparruetara, hala nola, balio hezigarrien garapenera, bizikidetzara, prestakuntzara, ekonomiara eta abarrera.

Irailaren 13tik 15era Iberoamerikako hezkuntza ministroen biltzarra egin zen Buenos Airesen (Argentina). Helburua 2021. urterako lurralde horietan erdietsi beharreko hezkuntza lorpenak erabakitzea izan zen.

Denak ados jarri ziren lurraldeen garapenean hezkuntza dela inbertsiorik garrantzitsuen adierazterakoan. Eta, ondorioz, lehentasunen artean, 2021ean hezkuntzarako inbertsioa Barne Produktu Gordinarean (BPG) % 5,5 izan beharreko asmoarekin bat egin zuten. Izan ere, gauegun, orotara, 34 milioi alfabetatu gabe eta 100 milioi lehen ikasketak amaitu gabe omen daude.

Lurraldearen arabera, hezkuntzak tratatu desberdina jasotzen du. Kuban, BPGren % 13,6; Venezuelan, % 9,8; Bolivian, % 6,3; eta Brasilen, % 5,2 bideratzen den bitartean, Peruk eta Uruguayk % 2 gainditzen dute, ozta-ozta.

Hezkuntzan inbertitzen denak, oro har, onurak omen dakartza beste esparruetara, hala nola, balio hezigarrien

garapenera, bizikidetzara, prestakuntzara, ekonomiara eta abarrera.

Guk ere hala dela uste dugu. Jendartearen ongizatean eta garapenean egin daitezkeen inbertsiorik onenak osasunean eta hezkuntzan direla deritzogu. Etorkizunari begira, hezkuntza da inklusioa eta aukera berdintasuna lortzeko, kultura izateko, oinarritzko prestakuntza eta etengabea hobetzeko, eta, ondorioz, lana erdiesteko bideirik ziurrena.

Deigarria egin zaigu aipatu biltzarrean Alvaro Marchesi, Angel Gabilondo eta Felipe Gonzalez estatu espainiarreko kideak aholkuak ematen ikustea. Ona da, nola ez, esperientziak partekatzea, egoerak ezagutzea, etorkizunaz hitz egitea, baina, esaten denarekin kontsekuenteak izatea ere oso ona litzateke, ezta? Norberak erabaki dezakeen guneetan, neurriak modu koherentean hartzea oso hezigarria litzateke. Eta horrek, praktikan, izen propioa du: **aurrekontua**. Zenbat dedikatzen zaion arlo horri, zer erabakitzen den es-

parrua hobetzeko, etorkizuna prestatzen zenbat **inbertitzen** den...

Esate baterako, Espainiako estatuak BPGren % 4,3 inbertitzen du hezkuntzan, Italiarekin batera Europako baxuena izanik. Batez bestekoa % 5,3 dela kontuan hartuz, inbertsioa oso eskasa dela deritzogu. Eta horrek guztiak, bere ondorio larriak ditu.

Alde batetik, eskola porrota handia da, Europako % 15aren aurrean, % 25eko da estatuan. 2015. urterako eskola porrota % 10era jaisteko erronka du Europak. Zein neurri hartuko dira helburua lortzeko?

Beste aldetik, 2020an Europako lanpostuen % 85 goi mailako edo maila ertaineko ikasleek beteko omen dituzte. Antolaketa eta inbertsio hoberik gabe nola lor litezke helburu horiek?

Eskerrak Hego Euskal Herrian, jende askoren ahaleginei esker, emaitzak askoz ere hobekak diren, hainbatetan, Europako batez bestekoen parekoak.

kronika

Hiru eleko ereduak martxan da EAEn. Jaurlearitzako hiru eleko ereduak, eskola orduen % 20 soilik emango dira derrigor euskaraz. Hiru urte iraungo du programak eta 40 ikastetxe aukeratu dituzte proba egiteko. Ikastetxe bakoitzean gehienez bi taldek hartuko dute parte, Lehen Hezkuntzako laugarren mailakoak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailakoak. Talde horietako ikasleek euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ikasiko dituzte ikasgaiak. Gutxienez, bost eskola orduetatik batek izan beharko du ezinbestez hizkuntza bakoitzean. Plangintza berriak, hain zuzen, euskarazko eskola orduak galtzea ekarriko die D ereduak ikasten duten ikasleei. Hortaz, hiru eleko eredu berriarekin, gaur egun D ereduak ikasten duten gazteek gaztelaniaz ikasi beharko lukete Espainiako Hizkuntza eta Literaturaz gain beste ikasgairen bat.



Berria

Euskal Herrian, oro har, D ereduko matrikulak indartzen ari dira

Irailaren 2an eskolatzen hasi ziren Iparraldeko ikasleak. Euskaraz ikasteko hautua egin dutenen kopuruak (D ereduak) gora egin du aurreko urtearekin. Seaska ikastolak zabaltzen ari da eta, oro har, ikasleak ugartzen ari dira hiru herrialdeetan.

Berdin gertatu da EAEn, D ereduak datuetan aurrera egin baitu. Ikasle guztietatik ia % 60k D ereduak matrikulatu da, aurreko urtean baino % 1,5 gehiago. Haur txikiak hasi berrien kasuan 4tik ia 3 matrikulatzen dira hor. Haur Hezkuntzaren % 71 eta Lehen Hezkuntzaren % 64. Ikusten denez, mailak aurrera egin ahalak, euskarazko matrikulak beheraka doaz. Horrela, DBHn % 56ra jaisten da eta DBHOn jaitsiera nabarmenagoa da, Lanbide Heziketan batez ere.

Nafarroan TIL ereduak sartzen

Nafarroan, bestalde, gorako tendentzia aurreko urtearen egin dela dirudi. Aurrera begira, ikusi egin beharko da eten hori gauza puntuala den edo hezkuntza eta hizkuntza politiken ondorioa ote den. Ez dira datu guztiak publiko egin eta zaila egiten bada ere azken balorazioa egitea, ditugun datuekin hau ondorioztatu liteke:

- TIL ereduak (ingeleza, euskara eta gaztelania edota hizkuntza tratamendu integratua) iazko datuak hirukoiztu ditu, 1.219 izatetik 3.999 izatera pasatuz.

- G ereduak (euskara gabea) jarraitzen du nagusi izaten herrialdean, 47.086 ikasleekin. A ereduak (euskara ikasgaiak) ia mila ikasle galdu ditu, 15.769 ikasleekin geldituz.

- D ereduak matrikula kopuruan gora egin du, 22.616 izatetik 23.059 izatera igaroz. Hala ere, datu esanguratsua da portzentualki murgiltze ereduak behera egin duela ikustea. Une honetan, % 22,04 ari da D ereduak ikasten.

3 urteko 4.163 ikasleek ekin diote ikasturte berriari, eta horietatik 1.062 (% 25,51) programa eleaniztunetan arituko direla nabarmen du Nafarroako Gobernuak. Ez du zehaztu ezer gehiago eta ezin da benetan jakin tendentzia zein den. Oro har, TIL eredu berriaren matrikula goraketa doala eta urte batzuetan behintzat hala joango dela dirudi.

**"Gauza txikiak egiten ditugu denok.
Gauza handiak egiten omen dituztenak ez dira
nire jendea, nire herria"**

Bitoriano Gandiaga



Seaskaren ustez, ikastolen aldeko herriak mehatxatu ditu prefetak

Pirinio Atlantikoetako prefetak, Philippe Reyk, Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Behereko auzapezei igorritako zirkularrak "ikastolak sustengatzen dituzten auzapez eta herriko kontseiluak mehatxatu ditu" Paxkal Indo Seaskako lehendakariaren ustez. "Ikastetxe pribatuei" -sare horretan sartzen ditu Estatuak Iparraldeko ikastolak- zuzenduriko laguntzen karietara legeak ezartzen dituen mugak gogorarazi dizkiete prefetak herri hautetsiei. Paxkal Indok ikastolek eskaintzen duten zerbitzu publikoa aintzat harturik, Falloux legea bertan behera uztea eskatu du. Legearen interpretazio zurruna egitea leporatzen zion prefetari. Izan ere, Frantziako legeak arautzen du elkarte eta erakunde pribatuek jaso dezaketene diru publi-

koa. Seaskak, ordea, interpretazio zabalagoa egiten du.

Hizkuntza politikan belaunaldi gazteen euskalduntzea da lehentasuna, eta haurrak euskalduntzen dituen eredu bakarra Seaska dela gogoratu du Indok. Horrez gain, Frantziako konstituzioak ondare aitortza egiten dio euskarari. Indoren iritziak, bi arrazoi horien gainetik argi dago Seaskak funtzio publiko bikoitza betetzen duela, eta, ondorioz, laguntza publikoa jasotzeko eskubide osoa duela. Prefetak ez du hori kontuan hartzen, eta egitura pribatuei dagokien legea inposatu nahi die.

Prefetak argi erakutsi du zein den estatuaren jarrera hizkuntza gutxituekiko. Eraikuntza arloan eta gainerakotan behar diren laguntzak ukatzea murgiltze ereduaren garapenari muga jarzea dela azaldu du Indok.

Hautetsienganako konfiantza

Seaskaren 40 urteko historia korapilatsua gogoraraziz, traba eta mehatxuak gainditzera deitu ditu hautetsiak. Ikastolen historian Reyren antzeko prefeta anitz egon direla nabarmen du Seaskak. "Haiek joan dira, eta guk hemen segitzen dugu, sekula baino indartsuago lan egiten euskararen alde".

Egoitza eta baliabide publikoak Seaskaren esku uztera deitu ditu auzapezak, murgiltze ereduak hautatu duten guraso guztiei eskaintza bermatzeko.

Gradu ikasketa gehiago jartzeko eskatu dio NUPek nafar gobernari. Nafarroako agintari politiko nagusiak aurrean zituela, eskaera zehatza egin zuen Julio Lafuente Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) errektoreak 2010-2011 ikasturte hasierako ekitaldian: ikasketa gradu gehiago eskatu zituen, eta Medikuntzarena aipatu zuen zehazki. Zientzietan, Giza Zientzietan eta Nekazaritza Elikadurako esparruetako graduak ere behar dituztela azpimarratu zuen "Nafarroako gizartearen beharrei erantzuteko". Lafuenteren iritziak, "NUPen dagoen eskaintza faltaren ondorioz, ikasle askok Nafarroa utzi behar izaten dute euren unibertsitate heziketarekin jarraitzeko". Lafuentek jakin badaki hori ez dutela inolaz ere saihestuko, baina beste gradu batzuk ezarri gero, arazoa konpontzeko bidean jarriko luketela uste du. Miguel Sanz Nafarroako presidenteak eman zion erantzuna hau esanez: krisi garai hauek eskatzen dutena da *murriztu, mantendu eta izoztu* aditzak ongi konbinatzea.

GAIA

Ordizia, hiri hezitzailea

Esperientzia





Euskal Herrian bada hainbat herri eta hiri “Hiri hezitzaile” gisa antolatzen hasia dena. Orain arte egitasmo hori Iruñean, Donostian, Gasteizen, Bilbon, Baionan, Barakaldon eta beste hainbat hiri edo herri handitan garatu bada ere, duela hiru urte Ordizia (Gipuzkoa) herrian abiatu zen esperientzia hori, eta horixe ekarri dugu hona, askorentzat eguneroko bizipenetatik gertuago dagoelakoan eta herri izaerak hezkuntza prozesurako beste aukera batzuk eskaintzen dituelakoan.

Izan ere, aldaketa nabarmenak gertatzen ari diren garaiotan, eskolak beren lana berrantolatu beharrean daude, eta, testuinguru horretan, hiriaren edo herriaren balio hezitzailea indartzen ari da.

Hiri edo herri hezitzaileak: etorkizuneko apustua

Udalerri guztiak dira eremu hezitzaileak, eta herritar guztiak dira eragile hezitzaileak, elkarren artean erlazionatzen diren heinean; harreman horietan transmititzen dira, hain zuzen ere, balioak eta jarrerak. Beraz, udalerrian lan eremu egokia da etengabe aldatzen ari den jendaratearen eskaerei erantzuteko.

Hori horrela, udalerraren eta hezkuntzaren arteko harremanetan, hiru maila bereizten dira:

a. Udalerrian ikasi. “Hezkuntza edukiontzi” zabala eta askotarikoa da udalerrria

- *Azpiegitura egonkorra dago, hezkuntza arloko erakundeek eratuta.* Talde horretan daude eskolak eta hezkuntza talde ez-formalak: aisialdiko taldeak, animazio soziokulturala, helduen etengabeko hezkuntza zentroak, eta abar.

- *Eskolatik kanpoko ekipamendu, baliabide eta erakunde publiko iraunkorrek daude,* hala nola, liburutegiak, gizarte etxeak edo kultura etxeak, museoak; alegia, berariaz hezkuntza sortzen duten zentroak, haien funtzio nagusia ez izan arren.

- *Hezkuntzarekin lotutako ekintzak egiten dira.* Atal honetako ekintzak askotarikoak dira: azokak, biltzarak, jardunaldiak, kanpainak, ospakizunak eta abar.

b. Udalerrirengandik ikasi

- Udalerriak hezkuntza ez-formala eskaintzen du, eta kultura eta gizalegea ikas daitezke, baina, era berean, beste hainbat balio ere barneratzen dira: oldarkortasuna, marjinazioa, sentsibilitaterik eza, kontsumismo neurrigabea, eta abar.

c. Udalerria ezagutu

- Udalerria esatean, identitatea, lekuaren jabetza, partaidetza esan nahi da. Bertakoa sentitzeazera da: norberaren auzoaren eta udalerriko osoaren eskaerei erantzuteko edo haiek bideratzeko ardura hartzea.

Errealitate horren aurrean eta horren inguruan sortzen ziren kezkei aurre egiteko, **hiri hezitzaileak** deituriko mugimendua osatu zen 1990ean, hiriei elkarrekin lan egiteko aukera eskaini nahian, herritarren bizi kalitate hobea lortzeko asmoz.

Horren gaineko informazio gehiago nahi duenak, helbidean honetan aurki dezake: <http://www.edcities.org>.



G

Ordizia, hiri hezitzailea

Udal gobernuen egitekoa Proiektuaren planteamendua eta urratsak

Tokiko gobernuak hezkuntzan duten zeregina

Tokiko administrazioa herritarren-gandik gertuen dagoena da, eta, horri esker, udal gobernuaren eta herritarren arteko harremana zuzena, eta, askotan egunerokoa izan ohi da. Udalak aldarrikatzen ari dira, haien hurbiltasuna dela-eta, herrietako eguneroko bizimoduan izaten diren arazoei aurre egiteko gune egokiak direla. Tokiko gobernuak bultzatu behar du udalerrria hezkuntza eragile intenziozko bihurtzeko prozesua. Haren eragina, beraz, tokiko eragileek kudeatzeko, eragiteko eta gobernuko maila guztietan konplizitate egokiak bilatzeko duten gaitasunaren baitan dago. Ikuspegi horretatik, hauexek dira, besteak beste, udalerrri hezitzailearen proiektuaren garapenean kontuan hartu beharrekoak:

- *Agintarien eta herritarren arteko barremana.* Herritarren ikuspegitik, parte hartzeko eskubidea hainbat mailatan erabil daiteke.

- *Berrikuntza eta demokrazia.* Administrazioan parte hartzeko metodologiak errealitate berrietara egokitu behar dira.

- *Aldaketetara egokitu beharra.* Gure sistema demokratikoko oinarriko arau eta erakundeak –udalerrri homogeneo samarretarako pentsatuta– gero eta eskasagoak dira, kultura aniztasun handiko gaur egungo gizartearen errealitateari aurre egiteko.

- *Erantzukizuna banatzea.* Haute-

tsi, teknikari, administrazio, erakunde eta herritarren arteko elkarlana.

Esan bezala, udaletako hezkuntza politikak kontzeptu horien gainean arituko dira: kohesio soziala, erantzukizunaren banaketa eta aldaketa.

Hiri Hezitzaile Proiektuaren planteamendua eta urratsak

Oinarri filosofikoak

Proiektuaren funtsezko filosofia da herri ekimenak eta hezkuntzarenak hasieratik integratzea, eta bermatzea hezkuntza komunitatea udalerrriak sortzen dituen ahalmen eta aukerekin lotuko dela eta haiek onartu egingo direla.

Hezkuntza proiektu bat egiteko, hiru tresna behar dira aldi berean:

- Udalerrian eragina duten dinamiken azterketa teknikoa: arazoak eta aukerak definituz eta udalerrriaren hezkuntza maila hobetzeko lan ildoak gomendatuz.

- Azterketa tekniko horretan, parte hartze prozesu koherente eta interaktiboa bultzatzea.

- Komunikazio prozesu integratzailea, zeinak bi helburu izango baititu: batetik, herritarrek proiektua ikusi behar dute dinamizaziorako eta gaur egungo eta gerokei aurre egiteko tresna gisa; bestalde, sensibilizazio eta kontzientziazio prozesua dakar berekin, eta horrek abiatuko du herritarrek nahi duten udalerrria lortzeko prozesua, funtzio hezigarria eta biztanleen prestakuntza, sustapena eta garapena bere gain hartuko dituen.

Antolaketa, parte hartzea eta komunikazioa

Udalak berak inizatiba hartu eta hiru arloak (antolaketa, parte hartzea eta komunikazioa) ongi garatzea ezinbestekoak dira, egitasmoak aurrera egin dezan.

Diagnostikoa

Diagnostikoa praktiko izan behar du. Helburu horrekin, hau da, herriaren errealitate hezitzailea ezagutzeko, lau atal aztertuko dira:

- Nolakoak gara (gizartea berregituratzeko oinarriko adierazle batzuk lortze aldera).

- Zer udalerrri, herritar, eskola, ikasle... mota ditugu.

- Zer baliabide, zer harreman... ditugu.

- Zer iritzi dugu.

Azterketa sistematiko hori ez ezik, diagnostikoa proiektua garatzeko erronka nagusiak aztertu eta udalerriko heziketa agendaren gai kritiko nagusiak identifikatu beharko ditu.

Ekintza Plana

Ekintza Plana diagnostikoa jendarean aurkeztu ondoren abiatuko da. Orduan hasiko da inplementazio prozesua: gizarte eragileen ekarpenak aztertu eta proiektuak bideratuko dira, adierazitako arazoei irtenbide espezifikoak bilatzen hasteko.

Ekintza Planaren amaieran ebaluazioa egingo da, ondorengo urteko plana zehaztu eta hobetzeko.



Ordizia, hiri hezitzailea proiektuaren diseinua

Udalerri Hezitzaile Proiektua, Ordiziako Udalaren Euskara, Kultura eta Hezkuntza departamentuaren ekimenez sortu zen, eta Gobernu Batzordearen eta Udalbatzaren onespenerekin ekin zion bere ibilbideari. Proposamena onartu ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako FIHEZI Fakultateko hiru irakasleren esku egon da proiektua suspertzea eta koordinatzea.

Proiektua 2008ko urtarrilaren 16an aurkeztu zen jendaurrian, Ordiziako D´ Elikatuz zentroan. Bilera hartan, proiektuaren helburuen berri eman zitzaion komunikabideei, eta, harekin batera, Ordizia Hiri Hezitzaile Proiektuak lehenengo hiru urteetan emango zituen urratsak zein izango ziren zehaztu zen:

- Hiri hezitzaileen gainean informazioa/dokumentazioa eskaini.

- Ordiziako Udala gaur eguneko erronkei erantzuteko modu berri bat eraikitzen hasi.

- Udalaren eta herritarren elkarlana bultzatu.

- Esperientziak aukeratzeko irizpi-deak definitu eta esperientzia zehatzak bideratzen hasi.

- Lortutako emaitzen azterketa eta ebaluazioa egin.

Aurkeztutako hiru urteetarako aurreplangintza honela labur daiteke:

2008. urtea

- Hiri Hezitzailearen ildo nagusiak definitzea.

- Udal Ordezkari eta teknikariekin bat egin eta aurreko esperientziak kontuan harturik, Ordizia Hezi-Gunearen Proiektu Orokorren zirriborroa gauzatzea.

2009. urtea

- Behin betiko Plana diseinatzea, eta 2009ko azken hiruhilabeteko eta 2010. urtearen ekimenak finkatzea.

- Proiektuan sartuta dauden partaideek landu behar dituzten ekimenetarako aholkularitza eta laguntza prestatzea.

2010. urtea

- Diseinatutako ekimenak garatzea.

- Proiektuaren arduradunek plangintzaren jarraipena egitea.

- Lortutako emaitzen ebaluazioa eta analisisa egitea.

- Amaierako Txostena aurkeztea

Hiria hezitzailea dela diogunean, zera adierazi nahi dugu: hezitzailea izateko intentzioa bere barnean kokatzen duela. Asmo horrek konpromiso politikoa eskatzen du, baina ezinbestean hiritarren konpromisoa ere beharko du. Elkarrekin, hiritarrek eta administrazioak, hiru maila horien lanari, behintzat, ekin beharko liokete.

PROZESUAREN KRONOGRAMA

EKINTZAK	2008		2009		2010	
	Urtarrila/ Ekaina	Iraila/ Abendua	Urtarrila/ Ekaina	Iraila/ Abendua	Urtarrila/ Ekaina	Iraila/ Abendua
Ordiziako Udala gaur eguneko erronkei erantzuteko modu berri bat eraikitzen hasi.						
Ordizia Hiri Hezitzaile bihurtzeko testuingurua ezagutu eta diagnostikoa burutu.						
Planaren zirriborroa egin						
2009ko iraila/ 2010eko abuztua bitartean garatuko den egitasmoaren plana egin.						
Egitasmoaren garapena						
Lortutako emaitzen azterketa eta ebaluaketa.						

Ordizia, hiri hezitzailea



Ordizian nola abiatu zen eta zer egin duten azaltzeko, esperientzia sustatzen aritu diren bi kide hauekin izan gara: Joxe Garmendia EHuko irakaslea eta Belen Maiza bertako zinegotzia.

Nola sortu zen “Ordizia, hiri hezitzailea” esperientzia?

Belen: Ideia hausnarketaren ondorioa izan zen, 2007an, zinegotzi gisa hasi nintzenean. Nik kultura, euskara eta hezkuntza ardurak ditut udalean. Gure ustez, oro har, betiko eskemetan ari ginen lanean, eta hura aldatu beharra zegoen. Gaurko jendartea beste era dinamikoagoan bizi da, eta horretarako egokitu beharra dago. Horri buelta batzuk emanez, Kataluniako hiri hezitzaileen esperientziak ezagutuz eta abar, herritarrak nola partaide sentitu, subjektu aktiboak nola izan, herrian protagonista nola izan... Eta, agian, hordago gakoa, nola uztartu eskolako heziketa eta herrian sortzen den heziketa.

Irakaskuntzan ibili garenok eskola nola “bunkerizatu” den ikusi dugu, eskema teoriko soil bati erantzun behar kobalio bezala. Gero, ikaslea bizitzarako prestatu behar dugula ohartzen gara. Dibortzio horretan nola jokatu behar den asmatu behar da, nola egiten



da hori guztia herriak bitartekoak jartzen ez baditu? Horretan datza, asmatzean zer bitarteko jarri eta nola kudeatu etekina ateratzeko. 18 urte betetzen dituzu, bat-batean eskubide osoko herritarra bihurtzen zara, eta herritar gisa ongi erantzuteko zer egiten da?

Eta, zer egin behar da?

Belen: Hori guztia, inguruko teknikariei, zinegotzietan eta abarri mahai gainean jartzen nien. Udalak, behar duenean, herritarrengana jotzen du, parte har dezaten eskatzeko, taldeak direla, foroak direla... baina herritarrak nola hautematen du hori? Bera garrantzitsua delako jotzen dute berarengana ala udalari une zehatz horretan interesatzen zaiolako? Bi interes horien uztarketa nola egiten da? Nola sentiarazi herritarrari, modu naturalean, udala berea ere badela?

Beste kezka bat “publikoaz” egiten den interpretazioa da. Herritarrak oso urruti ikusten du udala. Publikoa den hori badirudi ez dela inorena... Hiriko altzariak, loretoiak eta abar txiki-txiki eginda geratzen ziren asteburuetan. Halako egoeran zerbait falta dela, urruntze hori zergatik gertatzen den... kezka iturri dira, eta modu hezitzailean bideratzea ona litzatekeela uste genuen: elkarrekin lanean aritzea, elkarri

irakatsi eta elkarrekin ikasi, elkarrekin eraikitzeko.

Hori dena aurrera ateratzeko, alkaterekin, gobernu batzordekoekin eta udaleko teknikariek hitz egin ondoren, EHuko Felix Etxeberriarengana jo genuen. Eskara harriduraz hartu bazuen ere hasieran, taldea osatu egin zen.

Nola osatu zenuten taldea?

Joxe: Taldea Felix Etxeberriak, Elisabet Arrietak eta nik neuk osatu genuen. Planteamendu interesgarria iruditu zitzaigun, herritarren beharrei erantzutea unibertsitatearen eginkizuna ere bada-eta, gure ustez.

Ingurunea, gaur egun, askoz ere konplexuagoa da lehen baino, eta halako ekimenetarako eskola bakarrik sentitzen da memento askotan. Testuinguru horretan hiriaren (herriaren) balio hezitzailea indartu egin behar dela deritzogu, eta bi norabideko ibilbidea bultzatu behar dela, eskolako eta komunitateko, inongo zalantzarik gabe.

Hiriak eskaintza handia egiten du, baina ez da zerbitzuak eskaintzera soilik mugatu behar. Halako proiektu batek, gure ustez, herritarrak beren herritartasunean hezi egin behar ditu. Eta hori zer da? Hitz egin, entzun, eztabaiatu, elkarrekin adostu... Halako proiektu batek zentzua hartzen du interesgarria delako herritarrentzat, unibertsitatearentzat, eta udalarentzat. Hezitzaile izatea herritarren identitatea, idiosinkrasia, nortasuna, auzolana indartzea da. Hau da, bertakoa, bertakoekin bertakoentzat egitea da.

Ordizian, nola ari zarete planteatzen hori guztia?

Belen: Proiektuak, serioa izan nahi badu, jarraipena izan behar du eta soseguz egin behar da. Kronograma bat



egin genuen, eta herrian interesa duten zein talde izan zitezkeen aztertu genuen. Lehenengo lana asmoaren berri ematea izan zen, proiektuaren nondik norakoak ahalik eta era garbienean aurkeztea, eta lehenengo ariketa praktikoa udaleko politikari eta teknikariek egin zen. Oso ariketa berria izan zen, oso interesgarria, politikariek eta teknikariek batera hausnartu baitzuten zer eratako herria nahi duten: zer amets dituzten, zer aukera dauden, zer zailtasun, politikariek teknikariak nola ikusten dituzten eta teknikariek politikariak nola... Pixka bat biluztea izan zen, errespetu handiz, eta gauza asko aterazirendik.

Joxe: 2008ko urtarrilean abiatu zen guztia. Nola ikusten dugun, zer helburu dugun eta zer egin dezakegun. Gero, herriko elkarte guztiei deitu genien eta gauza bera egin genuen. Barakaldoko esperientzia aurkeztu zen eta testu-gurua aztertu ondoren, diagnostikoa egin zen, eta amestu genuena aurrera ateratzeko hiru urteko plana finkatzearekin genion.

Eskolek zer zeregin betetzen dute?

Joxe: Herriko talde gisa hartu dute parte. Eskola, kultura, immigrazioa, komunikazioa, euskara eta aisialdia lan ildoak jarri genituen, eta horien artean lehentasunak jartzearekin genion, denekin batera aritzea ezinezkoa zelako. Aisialdiari eman genion lehentasuna, eskolak ere horrekin harreman handia duelako. Baina aisialdian ez daude eskolak bakarrik, herriko taldeak, udalekuak, bertsolariak, erretiratuak eta abar ere sartu ziren. Horrela, lau ildo nagusi sortu ziren: belaunaldien arteko harremana, emakumea eta kirola, aisialdia oporretan eta osasuna eta prebentzioa.

Belen: Aterki zabalaren beharra dago, heziketarako plan osoari babes emango diona. Heziketa horretan, gazteak helduekin jarri dira harremanetan, ikasleak jubilatuen etxera joan dira, eta eskulanak, ikuskizunak, eta abar partekatu dituzte. Aldi berean, nagusiak eskoletara joan dira liburuetan ez dagoen hainbat informazio eskaintzera edo egiten ari diren partekatzerara... Belaunaldien arteko harremana nola garatu den ikusita oso pozik gaude.

Joxe: Emakumea Ordizian gaiarekin ari gara. Bertso eskolakoek ere parte hartzen dute, eta auzoetako jaietan herriko bertsolariak hartzen dute parte.

Belen: Azken finean, kontrabaliobatzuk ere indartzen ari direla esango genuke. Bertsolariak auzoetara joatea, bertako elkarteek nola funtzionatzen duten ezagutzeta, beraiekin jatordua egitea eta bertotan aritzea, beste ezezen truke, kontrabaliobatzuk ere gaur egun ia dena diruaren truke egiten baita. Eta, aldi berean, herritartasuna sustatzen ari dela deritzogu. Edo, nagusiak eskolara joan eta zer teknologia-rekin ari diren lanean ikusita, hau esatea: "Gazteok, duzuen aprobeztatu!". Testigantza horiek balio handia dute.

Joxe: Beste norabidean ikusita, ikasleak ateratzen direnean eta beste herritarren aurrean aurkezpenak egiten dituztenean edota haiena ezagutzen dutenean, hainbat kompetentzia lantzen ari dira. Eskolan eskatzen ari diren kompetentziak dira eta gizarte horretan bizitzeko prestatzen ari dira. Ez da aktibismo hutsa, harremanak egiten dira, elkarlana sortzen da, ezagutzeta be-riak agertzen dira...

Aurrera begira, zer ikusten duzue?

Joxe: Orain arte, talde eragile bat

aritu da. Ekimen batzuk egin dira eta horiek web orrian sozializatu dira. Lan horrek jarraitu egin beharko luke. Talde eragilearen jarraipena ziurtatu egin behar da, eta baita abiatu diren egitasmoak ere: belaunaldien artekoena, erretiratuena, beste elkarteetara iristea-rena, emakumeen gaiarena, euskara-rena, aisialdiarena...

Belen: Proiektuak ez luke epe mugatu baterako izan behar. Aurrera begira, adostasuna egon beharko luke alderdi guztien artean, ideia eta esperientziarekin bat egiteko. Hurrengo hauteskundeetan emaitza edozein dela ere, *berri hezitzaile* egitasmoaren jarraipena ziurtatu beharko litzateke. Parte hartzearen transmisioa modu natural batez egiten ez bada, zaila izango da gerora herritarrei parte har dezatela eskatzea. Emaitza egokiak nahi baditugu, transmisioa eta praktika hezitzaile hori egin beharra dago, ezinbestean.

Amaitzeko, zein da zuen inpresioa?

Belen: Niretzat, gustukoena ikaste-txeek egin duten balioespina izan da. Beraiek, hori guztia heziketarako baliagarria dela diote, erreminta ona dela beraien curriculumetan dituzten helburuak betetzen laguntzeko. Eskola batek hori ikusteak izugarriko potentzialitatea ematen dio egitasmoari. Eskolak herrian txertatuta egon behar du, eskola baita herriko gunerik garrantzitsue- na, eta ezin du jokatu aparteko zerba- it balitz bezala.

Joxe: Beno, balioespen orokor bat egin da eta talde guztiei pasatu zaie hori. Esan liteke, gorabeherak gorabehe- ra, egindakoa oso ongi balioetsi dela. Bidea ireki da eta aukera handiak daude, lan lerro dezente aurreikusten dira- eta. Intentzio hezitzailea egin behar du beti, eta hori jendeak ongi ulertu du, hortxe dago gakoa.

Ordizia, hiri hezitzailea

Adibide zehatza: tailerren ekarpena

Politikari, teknikari eta herritarren lehentasunen taula konparatiboa

GAIAK	UDAL ORDEZKARIAK ETA TEKNIKARIAK	HERRITARRAK
Komunikazioa eta komunikabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Udal eta herritarren arteko harremanak eta komunikazioa landu behar dira. • Udalak duen web orria informaziorako tresna baliagarria eta garrantzitsua da egunero sortzen den informazioa hedatzeko eta datu-base moduan erabiltzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Udaletik ematen den komunikazioa hobetu beharra dago.
Modernizazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak etorkizunari begira erronka berriei erantzuteko prestatu beharra du. • Modernizazioa helburu izanik praktika egokiak bultzatuko ditu. 	
Arlo hezitzailea	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak heziketaz egiten duenari buruz hausnarketa egin behar du. • Arlo horretan udal agintariak eta sailek eredu izan behar dute. 	<ul style="list-style-type: none"> • Heziketa ikuspegitik, herriko sektore guztiak inplikatzeko beharrezkoa da, une konkretu batzuetan gutxienez (San Joan Bosco...), elkarlana bultzatzeko. • Heziketa ikuspegia ingurumenera ere zabaldu behar da: dugun ingurune naturala balioetsi (Oiangu, Mariaratz, Oria, Amundarain...), horren balioak ezagutarazi, hobetu eta babesteko. • Heziketaren lehentasuna ezin da izan lehiakortasuna: kirola, lehiaketarekin ezin dugu parekatu; garrantzitsuena parte hartzea da, haur eta gazteentzat bereziki.
Azpiegiturak	<ul style="list-style-type: none"> • Herri integratzaile baten lehentasunetako bat oztopo arkitektonikoak ezabatzea da. • Etorkizunari begira, auzo berriak ikuspegi integratzaile batez eraiki behar dira. Auzo zaharrak ere ikuspegi horrekin berrantolatu eta egokitu behar dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Azpiegitura eta baliabideen kudeaketa hobegotu beharra dago.
Euskara	<ul style="list-style-type: none"> • Euskarari prestigioa eman beharra zaio udaletik. 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskara indartu beharra dago. Egiten diren ekimenak hobeto bideratzeko proposamenak zehaztu behar dira.
Arlo soziala	<ul style="list-style-type: none"> • Arlo horretan lehentasunezko ildoak dira esku-hartze soziofamiliarra eta arriskuan dauden adin txikikoak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Etorrin, gazte eta helduen integrazioa bultzatu behar da, eskolan eta eskolatik kanpo, herriko erakunde eta elkarteak ere inplikatu.
Agenda 21	<ul style="list-style-type: none"> • Mugikortasun arloan (bidegorria, oinezkoentzako eremuak...) parte hartzea bultzatu behar da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte hartzea bultzatu zenbait ekimenetan... • Festetan zabor gutxiago sortzeko ekimenak bultzatu.



Ordizia, hiri hezitzailearen lehen urratsak. Landutako lan ildoak: belaunaldien arteko harremana, hezkuntza eta bertsoaritzza

Hauek izan dira 2010ean garatutako egitasmoak:

- *Florido Pensil* antzerki-bideoa aurkeztu zitzaizen herritarrei.

- Jakintza ikastolako ikasleek Erretiratuen Etxean antzerki saioa egin zuten.



- Herriko erretiratuak Institutuan bisitari izan ziren, atzoko eta gaurko eskolak alderatzeko.



- Urdaneta Ikastetxeko ikasleen eta Kimetz elkarteko eskulan taldekoen arteko Topaketak egin ziren.



- Ojanguren Institutuan "Belaunaldien arteko Topaketak" egin zituzten, ikasleen eta Erretiratuen Etxeko arteen.



- Erretiratuek ikastolan beren esperientziak azaldu zituzten.

- Ikuskizun Musikala, Urdaneta, Jakintza eta Jubilatuen Etxeko abesbatzak elkarrekin aritu ziren.



- Majori eta Eskarabila auzoetan, Goierriko bertso eskolako eskutik "Bertso saioak" egin ziren.

- Ebaluazio bilera egin zen.



jaione apalategi

ELKARRIZKETA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) irakaslea

“Hezkuntzak duen galerarik handiena, bere zientzia den Pedagogiak, oraindik ere, behar duen independentzia lortu ez izana da”



jaione apalategi

E

“ Pedagogiak zientzia gisa bere independentzia galdu egin zuen. Eta hori izan da hezkuntzak jaso duen galerarik handiena. Psikologia eta Soziologiarekin batera sortu zen zientzia da, baina, horiek ez bezala, Europako estatu eta nazioen egituratze eta indartzeek bere independentzia galtzera eramán zuten. Zergatik ez ditu unibertsitateak pedagogo talde sendoak eta zergatik ez dago pedagogoen elkarte zientifiko edo ikerketa zentro independenterik?

”

1988an hasi zen Jaione Apalategi ataundarra Iruñeko Irakasle Unibertsitate Eskolan lanean, berehala, Nafarroako Unibertsitate Publikoko campusaren barne geratu zena. Geroztik da bertako irakaslea. Haur Hezkuntzako berezitasunean hasi zen euskarazko irakaskuntza ematen. Ondoren etorri ziren Lehen Hezkuntzan, Musikan eta Atzerriko Hizkuntzan ere jardun du. Orain Haur eta Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduetan -HHIG eta LHIG- eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterrean murgildurik dago.

Pedagogian doktorea da. Kudeaketa lanetan aritu da 1996tik 2003ra bitartean eta 2007tik gaur arte, bai Psikologia eta Pedagogia Sailean zein Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatean, bertako dekanoa izan zelarik.

Hezkuntzaren eta Ikastetxearen erakuntzaren teoria eta praktikaren ikuspegitik irakasten eta ikertzen du. Hezkuntza egitatearen garapena, ikastetxearen makro eta mikro antolatetan nola gauzatzen den aztertzen du, hezkuntza erakundearen eremu erreala, legala eta zientifikoak ikertuz. Haren lehenengo lanak 1986koak dira, eta geroztik, argitalpen eta saio akademiko ugari eman ditu bere ekarpenak: bakarrik edo askoren artean egindakoak, kongresu aktetan, aldizkaritan...; hitzaldi, mahai-inguru, irrati edo telebistan...; Doktorego tesi eta behin betiko irakasle lanpostuetarako oposaketetako epaimahaikide lanetan, hainbat jarraipenerako batzorde akademikoetan... eta abar.

1992 urtetik Jorge Oteizak haren Fundazio-Museoko patronatuko kide izendatu zuen, Nafarroako Altuza herrian 2003tik egoitza duen Museoa. Fundazioaren lana Oteizaren ondare artistiko eta intelektuala kudeatzea da.



Hasi berri dugun ikasturtean martxan da Bolognako eredu sonatua. Zer aldaketa ekarri ditu titulazioen aldetik?

1998an Europako estatu gutxi batzuk, gerora gehitzen joan direnek eta Europako Unibertsitate Eremua edo EUE gisa ezagutzen dugunak, unibertsitateko ikasketen batasun beharra ikusten zuten. Ondorioz, beste aldaketa askorekin batera, diplomaturak, lizentziaturak eta doktorego programak, hau da, lehenengo, bigarren zein hirugarren zikloko tituluen egiturak bateratu egin dira, graduak eta gradu ondokoak (masterrak –profesionalak edo ikerketakoak- eta doktoregoak) sortuz.

EU Eren asmoa zera zen: unibertsitate tituluen egitura, neurria, baliokidetzatza eta mugikortasuna gauzatzeko, iraupen bereko ikasketak egitea. Hori izan zen lehendabiziko ahalegina. Baina, besteak beste, zera gertatu da: ikasketak batzuk oso-oso politikoak direla, oso administratiboak, eta Irakasle ikasketak da horietako bat. Badu halako ukitu berezi bat estatuaren politika orokorrekin eta zehazki hezkuntza politikekin.

1950az geroztik hasi zen, bereziki, hori dena gauzatzen European, II. Mundu Gerraren ondoren. Gaur egun ahoz aho, hain erraz eta arruntki azaltzen ditugun hezkuntza sistemak ez ziren ordua arte gorpuztu. Saiakerak, ikuspegi teoriko-pedagogikoak, eskolak, mugimenduak, egon, bai, egon ziren... Bistan da XX. mendeko 1935tik 1965ra bitartean, irakaskuntza publikoan aurrerapen kualitatiboak egon zirela, baita haurtzaroaren Psikologia eta Soziologia zientzietan ere. Pedagogia zientzia, berriz, atzera geratu zen, nabarmen, estatu bakoitzak bere hezkuntza sistema-

ren lidergoa eta etorkizunera begira he-
rritar denek formatzeko eduki beharre-
ko eskubidea beretzat hartzearekin.
Hezkuntza sistemak estatu eta nazioen
tresna politiko baliotsuak bilakatu zi-
ren, eta Pedagogia zientzia erabateko
ahuldadean sartu zen, eta halaxe jarrai-
tzen duela uste dugu.

Zer ondorio ekarri du horrek?

Bada, Pedagogia independentea ez
izatea. XIX. mende bukaeran eta XX.
mende hasieran Pedagogia, Soziologia
eta Psikologia zientzia independente
gisa beren ibilbidea egiten hasi ziren eta
ekarpen berri asko ekarri zituzten hez-
kuntza eta heziketaren mundura. Zien-
tziek ikuspegi berriak ekarri behar di-
tuztela suposatzen da, hor dauden eta
ikusten ez diren ikuspegiak argitara
ekarriz. Baina zer gertatu zen? Hiru ho-
rietatik Pedagogiak bere independen-
tzia galdu egin zuela. Eta hori izan da
gure Hezkuntzaren galerarik handie-
na. Psikologiak zientzia independente
izaten jarraitzen du, hots, bere ikerketa
zentroak ditu, eta elkarte zientifiko in-
dartsuak ere bai. Soziologiak berdin.
Baina Pedagogiak? Zer da Pedagogia?
Zenbait estatutan Pedagogia ikasketak
daude, baina zertarako balio dute? Ez
da argi aurreikusten ikasketa horren ez
lan eremua ez egitekoa. Hezkuntzare-
kin lotzen den lanbide profila irakasle-
arena da. Eta non daude pedagogoak,
zein da lanbide honen profila. Nork da-
ki? Zergatik ez ditu unibertsitateak pe-
dagogo talde sendoak eta zergatik ez
dago pedagogoen elkarte zientifiko
sendorik, elkargorik edo ikerketa zen-
tro independenterik?

Nire ustez, euskaldunok zeregin
garrantzitsua daukagu hor: gure hez-
kuntza lorpenei dagokien iraunkortas-
una, hedapena eta berrikuntza emate-
ten jarraitzeko, pedagogia zientzia in-
dependente gisa ulertzea eta antola-
tzea, hain zuen ere.

Eduki eta metodologia aldetik ezer aldatu al da Bolognarekin?

Bai. Unibertsitate guztiok graduen
(eta masterren) oroit-idazkiak egin di-



tugu gero estatuetakoa hezkuntza agin-
teek baieztatu dizkigutenak eta hor jasotzen ditugu aldaketa guztiak. Gurean
16-18 hilabete jardun ginen idazten.
Oroit-idazki horretan esandakoak he-
mendik 6 urtera ebaluatuko dizkigute.

Guk garrantzi berezia ematen diogu
“egiten jakiteari”, praktikari eta teo-
riarekin duen loturari. Horregatik, le-
hentasuna emango diegu proiektuen
bidezko irakaskuntza-ikaskuntzari eta
ikastetxeetako praktikari. Alderdi ho-
riek guztiak integratuko dituen irakaste
metodologia pentsatu eta antolatu du-
gu: talde handian, lan autonomoan eta
talde ertain edo txikian (mintegia/lan
praktikoa), irakasteko eredu hori erraz-
tuko duena. Horretarako, ordutegi bat
ere asmatu dugu, elkarren segidako bi
egunetan metodologia ibilaldia egiten
duena.

Orduan, besteak beste, aldaketa bat
*practicum*arena da. Ez dago gaur egun
aplikazio praktikorik gabeko ikasketari-
rik, are gutxiago HHIG eta LHIG beza-
lako titulu profesionaletan. Gure ikas-
keta plana 4 urtekoa da eta 2. urtetik au-
rerra 6 hilero eskolara joan behar dute
unibertsitatean ikasitakoa frogatzera.

Horretarako, guk aurretik proiektu
batzuk prestatu beharko ditugu eskole-
tako irakasle eta tutoreekin batera.

Eredu hori egokia dela uler dezake-

gu denok (unibertsitateak, hezkuntza
sareak, elkarteak zein ikastetxeak), bai-
na ondo gauzatzeko erkidegoko admin-
istrazioaren inplikazioa beharrezkoa
da. Unibertsitateak irakasle onak for-
matu ahalko ditu, baldin eta proiektu
honetan sinesten duten ikastetxeak eta
tutoreak eskura jartzen bazaizkio. Guk
esana diogu Nafarroako Hezkuntza
Administrazioari, onartua dugun oroit-
idazkiari jarraiki, antolatu nahi dugun
Eskola praktiken eredu garatzeko,
ezinbestekoa izango dela, NUPEk,
ziurtagiri baten bitartez, Haur eta Lehen
ikastetxeetako irakasle elkartuak direla
aitortzea. Eta unibertsitateko irakasleoi
gure lan orduetatik % 5 horretarako
onartuko diguten bezalaxe, beste era-
baki mota batzuen artean, ikastetxeeta-
koei % 15 aitortzeko bidea egin behar-
ko lukete. Zer egin dezakegu hezkun-
tza elkarte eta administrazioek ez badu-
te onartzen bere plantillako irakasle
horiek unibertsitateko formazioan ko-
laboratzen ari direla, eta astean bete be-
harreko ordu kopurutik, ordu batzuk,
honetara dedikatu behar dituztela? Zer-
gatik? Irakasle profesionalak direlako
eta lanbide honen errealitatea ezagu-
tzeko tutore hobegorik ez dagoelako.
Hori delako heziketa teorikoa eta prak-
tikoa sustatzeko modurik egoki, bidez-
ko eta formatzaileena.

“ Orokorrean erretiratu arrakastatsuen gizarte ereduari bizi gara. *Retraité*. Oharkabea, jende gaztea erretiratu horien mentalitatearekin etortzen da: lanpostu on bat lehenbailehen, eta gero oporrak, asteburuak libre, pisuak, autoak... gizarte honek hori erakutsi diolako. Gazteengan gustatzen ez zaiguna guregatik da, ez gazteengatik. Agian guk nahi gabe, baina guk egindako eta erakutsitako bidea egiten dute, bidea horrela aurkitu dutelako iritsi dira horra.

”

Zehaztuta al daukazu oroit-idazkian nolako irakasleak hezi behar dituzten?

Bai. Hasteko, denok dakigu irakasleek formazio teoriko sakona eduki behar dutela. Baina teoria zertarako? Gero aplikatzen jakiteko. Aplikazioan oinarritutako teoria izan behar du. Erakuts diezazkiegun Europan adostuak dauden hezkuntza eta heziketarako erronka eta gaitasunak zein diren. Baina jakinik, gero indarrean dagoen eta lekuan lekuko eskola ereduari lan egiteko prestatu behar dela.

Gure HHIG eta LHIGko Ikasketa Plan hauek ondoko profila duten irakasleak hezitzeko asmoa dute: kultural jantziak, lanbideari dagokion ardurarik eta soziala garatzeko eta profesionalak, helburu eta ikaskuntza emaitzak gaitasunetan ezartzeko gai izango direnak.

Zein ezaugarri edo gaitasun izan behar dituzte etorkizuneko irakasleak?

Lehendabizkoa: irakasleak pertsona kultua izan behar du. Eta hori da gaur egungo gabezia ikaragarri bat. Kultura orokorra edo goi mailakoa falta da. Gizartea, haurrak eta ikastetxeak ingurune sozio-ekonomiko-geografiko-historiko batean kokatuta daude. Gaur egun gutxi erabiltzen dute ongi geografia. Ikaragarria da zer gutxi dakigun geografiaren inguruan. Euskal Herriko irakasleok oso ongi menperatu beharrekoa da, lehengo eta behin geurea, ondoren Europakoa eta atzetik beste guztiak.

Orduan, gure fakultatea Nafarroan baldin badago, erakuts diezazkiegun gure ikasleei lasai eta ondo Nafarroako inguruneak kokatzen eta arlo zientifikoko bakoitzean izan ditzazkeen harremanak ulertzen. Eta horrekin, irakurketa jantziak eginez eta iturri egokietara bideratuz, formazio sendo bat eta etengabeko bidea eskaini ahaliko diegu.

Unibertsitateko irakasleen lana, ikasleen prestakuntza akademiko, profesional edo zientifikorako gaitasunak lortzen laguntzea da. Hortan dago gakoa.

Motibatuta edo kezka pedagogikoarekin ikusten al dituzu fakultateko ikasleak? Ala lan finko bat, soldata bat, ordutegi ona... lortzea da euren helburua?

Bai, posible da bigarren hori gertatzea, baina, agian, hori ez da beraiek uste dutena, baizik eta gizarte honek eraman ditu hori uste izatera. Gazteak dira eta gazte horiek gizarte honekin aurkitu dira. Gizarte horretan tokia egiteko ikasketa batzuk ikasten hasten dira eta esaten dieten moduan: honetarako, horretarako eta han gelditzeko.

Orokorrean erretiratu arrakastatsuen gizarte ereduari bizi gara. *Retraité*. Oharkabea, jende gaztea erretiratu horien mentalitatearekin etortzen da: lanpostu on bat lehenbailehen, eta gero oporrak, asteburuak libre, pisuak, autoak... gizarte honek hori erakutsi diolako. Gazteengan gustatzen ez zaiguna guregatik da, ez gazteengatik. Agian guk nahi gabe, baina guk egindako eta erakutsitako bidea egiten dute, bidea horrela aurkitu dutelako iritsi dira horra.

Gu gure gurasoek hezi gintuzten eta guk geure seme-alabak. Konturatzen gara hezteko zenbat izerdi atera behar den eta emaitzak zein gutxi ikusten diren batzuetan baina, ia beti, guk ontzat ematen ditugun emaitzetan ari gara... Bada, gizarte bat ere hezi egin behar da eta bere erakundeetako eragile guztien ardura da, politikariak eta teknikariak barne.

Gizartea eta politikariak aipatu dituzu. Zer harreman duzue unibertsitatearekin, eskolarekin eta, oro har, gizartearekin?

Guk dauzkagun ikasleak, ikasketak bukatu orduko badirudi desagertu egiten direla. Gurekiko harremana bukatu egiten da. Batzuk oposaketa sisteman sartzen dira eta administrazioarekin jartzen dira harremanetan: administrazioak bere formazio zentroak izan ohi ditu eta haiek eskaintzen diete, nonbait, behar duten guztia. Beste ba-

tzuk ikastola edo ikastetxe pribatueta-
ra jotzen dute eta haiek ere beren for-
mazioa eskaintzen dute. Eta unibertsita-
teok hemen gelditzen gara. Gure tituluak
beharrezkoak dira lanpostuetara
aurkezteko, baina handik aurrera, he-
ziketa iraunkorrerako, ezer gutxitara-
ko behar gaituztela dirudi edo ezer gu-
txi eskaintzen dugula, guk geok ere.
Bai, parte hartzen dugu hezkuntza sare
osoarekin, ez dakit zertan, deitzen di-
gute ez dakit zer egiteko, ikertzen du-
gu, argitaratzen dugu... baina ez dago
sarea behar bezala antolatuta.

Nik hiru erpin dituen ezinbesteko
lan-batzordeen beharra ikusten dut
hezkuntzan: unibertsitatea, ikastetxe-
ak eta administrazioaren artean osatu-
takoak, hain zuzen ere.

Denok hitz egiten dugu Finlandia-
ko irakasleen prestaketa ereduaz eta
han egin zuten lehenengo gauza admi-
nistrazioko garbiketa adostea izan zen,
unibertsitateari formazioaren lekukoa
pasaz. Eta gaur egun eskoletan, admi-
nistrazioan eta unibertsitatean lanean
dihardutenak oso elkartuta daude.

Bestetik, Euskal Herrian ikastetxe-
ak egiten ari diren lana ikaragarria da
eta hori askoz gehiago egituratu behar
da.

Eta azkenik, unibertsitateari aska-
tasuna eta laguntza (gizazkoak zein
materialak) eman behar zaizkio pen-
tsatzeko, sortzeko eta ikertzeko, ez
honen edo haren mesederako, hez-
kuntza eragileen eta gizartearen me-
sedetarako baizik. Adibidez, eskola
jardunak zer izan behar du, goizekoa
ala arratsaldekoa? Unibertsitatean hori
ikertzen duten irakasleak egon behar
dute, baina ikertu dezatela ez beraiei
otu zaielako, baizik eta ikastetxeekin
harremanetan jarriz, hango irakaslee-
kin, guraso elkarteekin, administra-
zioarekin eta nazioarteko beste eredu
batzuk aztertuz, gizartearen izate eta
premiei erantzungo dioten proposa-
menak egiteko. Ezin da ordutegi bat
ezarri ikerketa sendo batean oinarritu
gabeko beste arrazoi politiko, admi-
nistratibo, korporatibo edo ez dakit
zeregatik.

Hiru erpin horiek ezinbestean erlazionatu behar dute. Ba al dago horretarako borondaterik?

Lehendabizi, borondatea agertze-
ko, giza-kultura baten parte sentitu be-
har zara eta une honetan, gure herrian,
gabezia handia ikusten dut. Gure lur-
ralde ezberdinetako administrazioak,
bera eta berea egiten ari dira, eta hori
ongi egitea beste helbururik ez dute.
Gure unibertsitateetan gauza bera ger-
tatzen da. Eta gainerako lekuetan ere
bai.

Baina lehen aipatu dudan moduan,
II. Mundu Gerraren ondoren lana sortu
zen, gosetea amaitu, familiak euren
premiei erantzuten hasi ziren eta poli-
ki-poliki esaten has zitekeen "ai, zein
ondo gauden, zein lasai". Euskararen
eskolagintzan lasaitasun egoera bera
ikusten dut. Zergatik? Lorpen handia
izan da eta dagoeneko hori horrela iku-
si eta bizi izan duten belaunaldiak ditu-
gu. Orduan, horiek etorri dira, jarri dira
eta egon hor daude. Giza eta gizarte-
aren eskubidez asko hitz egiten da, oso
ondo ezagutzen dira eta hedatze ahale-
ginetan ari gara. Baina betekizunak ez
dakit hain bide ona daramaten, ez ote
diren oso pertsonalak eta oso gutxi so-
zialak. Ez da hainbeste ikusten komu-
nitateari edo elkarteari eman beharre-
ko alderdi hori.

Irakasleak prestatzen ari gara, ongi
ari dira iristen lanpostuetara, ongi egi-
ten dute lan... baina ez da nahikoa ez
baditugu hezkuntza eta heziketa gau-
zatzen den leku guztietan pentsalariak
eta ekintzaileak sortzen. Profesionalta-
sunik gabeko borondatearekin ez du-
gu aurrera egingo. Horregatik, buruza-
gi profesionalak behar ditugu, liderrak
behar ditugu. Askotan lidergo hitza ez
dugu ongi erabiltzen, ez dugu behar
den lekuetan azaltzen edo ez dakit zer
komerri gertatzen zaigun.

Hezkuntza pentsalariak eta ekintzaileak. Nor ikusten duzu lan hori egiten?

Pedagogoak batean eta irakasleak
bestean. Argi eta garbi ikusten dut hez-
kuntzak bi lanbide atal nagusi bereizi



beharko lituzkeela: bata irakasleek
osatuko luketena, non Euskal Herriko
hegoaldeko unibertsitateetan, behinik
behin, 4 urteko gradua eskuratu ondo-
ren, lehenbailehen ikastetxeetan lane-
an jarri beharko lirakeenak. Bien bi-

“ Irakasleak prestatzen ari gara, ongi ari dira iristen lanpostuetara, ongi egiten dute lan... baina ez da nahikoa ez baditugu hezkuntza pentsalariak eta ekintzaileak sortzen. Profesionaltasunik gabeko borondatearekin ez dugu aurrera egingo.

”

tartean unibertsitateek irakasle lanbiderean inguruko gradu ondokoak prestatzen aritu beharko lukete, hezkuntza administrazio eta ikastetxeekin elkarlanean.

Beste alderdia, pedagogoen osaturikoa da. Independentiak. Ez da ulertu behar talde honetatik bakarrik aterako liratekeen “pentsalariak”. Ez da hala, noski! Bai, ordea, horien egitekoa hezkuntza pentsatzea izan behar dela, gero pentsalariak bihurtu edo ez. Eta pedagogoen zertarako balio dute? Unibertsitateko hezkuntza ikasketetako irakasle izateko... administrazioko hezkuntza agintari, teknikari eta sail ezberdinetako arduradunak izateko... ikastetxe eta hezkuntza aldi ezberdinetako zuzendari pedagogiko (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa, Batxilerra...) orientari eta abar izateko. Horretarako gaitu beharko lukete Pedagogia gradu eta gradu ondoko tituluek. Zuzendari pedagogikoak behar dira ikastetxeetan, ezin dugu jarraitu txanda pasa eginez, orain niri egokitu zait eta gero zuri.

Horrela antolatutako hezkuntza ikasketak benetako aldaketa eta hobekuntza ekarriko luke ikastetxe eta heziketa mundura. Ikastetxeetako irakasleek irakasle ikasketak, eta zuzendariak pedagogikoak egin eta etengabeko formazioa jasotzeko, berrantolatzean dago gakoa.

Zenbat ikasle dituzue irakasle ikasketak euskaraz egiten? Nolakoa da garapena?

Euskarazko lerroaren garapena harrigarria izan da. 1988an hasi ginenean 8-9 ikaslerekin hasi ginen eta gaur egun 120tik gertu gaude, plaza erdiak Haur Hezkuntzarako eta beste erdiak Lehen Hezkuntzarako. Erdarako lerroan talde bat gehiago dute Lehen Hezkuntzan, guztira 180 plaza dituztelarik. Hori harrigarria da. Zera ikusten da: ikasketak hauek egitera etortzen direnek, besteak beste, euskarazko ikasketak hauek baliagarriak direla pentsatzen dutela.

Nola ikusten duzu euskararen garapena gainerako ikastetxe nafarretan?

Hor gertatzen ari dena ere oso adierazgarria da da. Harrigarria. Nafarroan dagoen 1986ko Euskararen Legeak sekulako bilakaerak sortarazi ditu ikastetxeetan. Legeak, esaten duena esaten du, baina oso interesgarria da ezagutzeari lege horren aurrekariak eta ondorioak. Gutxiak dakite aurretik egin ziren ikerketen berri eta ondorengotik, gertatzen ari dena, Euskal Herrian gutxitxo ezagutzen dela esango nuke. Eta garrantzitsua da errealitatea, legea eta baita aurrekariak ezagutzeari ere.

EHUko Antropologia Saileko Jesus Azcona Mauleon katedradun nafarrak zuzendutako taldeak “Nafarroako euskararen muga geografiko eta sozialak” ikertzeko enkargua hartu zuen. Ikerketaren ondorioetako azken lerroan zera zioen: “...euskara nafar guztien ondare gisa hartu behar da; babestu nahi bada, foru osoan egin beharko da...”. Eta hala eta guztiz ere, muzin egin zitzaien ondorio horiei. Euskararen aldeko legea izan beharrean, erdararen babeserako legean bihurtu zen.

Zer ondorio ekarri ditu Euskararen Legeak?

Ondorio oso onak eta txarrak ekarri ditu. Garapen desberdinak izan dira eta atzerabideak ere bai. Adibidez, orduetik urte asko pasa dira eta pena da Nafarroan eskolaren bitartez sare publikoan zein pribatuan ezin ahalbidetu izana euskararen garapen ofiziala lurralde osoan. Nafarroan, euskarak aitortpen ofizial ezberdina du. Lurraldearen zati batean soilik da ofiziala (lurralde euskalduna), beste batean (lurralde mistoa) gurasoen eskatzen badute (ikastetxe publikoetan gauzatzen dena soilik eta ikastetxe pribatuetan islatzen ez dena), eta hirugarrenean, berriz, ez da ofiziala (lurralde ez-euskalduna). Ikastolak, hiru lurraldeetan zehar aurkitzen dira antolatuturik.

Bost aldiz eskatu da Nafarroako Legebiltzarrean lege hori aldatzeko eta ez da aldatu. Baina, soziologikoki, jendea

euskararen alde sentsibilizatzea lortu du lege horrek eta hainbat lorpen erdie-tsi dira. Esate baterako, zonalde ez euskaldunetan harrigarria da zenbat ikasle dabilzan A ereduan, kontuan izanik G eredua edo euskararik gabeko irakaskuntza ere aukera dezaketela. D ereduan ikasteko aukerarik ez daukate baldin eta ikastoletara joaten ez badira. Beste zenbait herritan mugimenduak hasi dira lurralde ez euskaldunetik lurralde mistora pasatzeko eskatuz eta lortu dute. Adibidez Noainen, Mutiloagoitin eta Mutiloabeitin.

Sare publikoan izugarrizko mugimendua dago, oso sutua da. NIZE elkartearen sare publikoko zuzendariak daude elkartuta eta oso talde dinamikoak da. Hezkuntza administrazioan kontuan hartzea lortu dute.

Bestetik, Nafarroan sare pribatua ere kontuan hartzeko da, aurtengo datuek diote %35koa dela eta oraindik gutxi dira euskararen aldeko irakaskuntzaren apustua egin dutenak.

Egon diren lorpenak behetik gorako bidea egin dute eta oso esangarriak dira. Alde horretatik, oso baikor naiz. Shakespearek esaten omen zuen: "...noizbait Nafarroak mundua harrituko du..."

Nola dago euskal curriculumaren gaia Nafarroan?

Curriculumaren gaiarekin berriz ere hatzapar politiko hutsa egon da, aginte politiko ez nafarren hatzaparra. Beraien asmo politikoa Nafarroa nafartasunez hustea da, bera dena ez izaten uztea. Orduan, zer da nafar izatea beraietaz? Bada, nafarra ez izatea. Kurioso da, ez dakit silogismoa den edo zer, baina beraiek egiten duten guztia nafarra izaten uzteko egiten dute. Orduan, curriculumari dagokionez, beraien kezka da ezertan ere antzik ez edukitzea Euskal Autonomia Erkidegokoarekin, ezertan ere ez, eta aldi berean, Euskal Herriko curriculumerako bidea galaraztea.

Orduan, horretarako, beraien esku dauden baliabide guztiak abian jarri dituzte. Ikasmaterialak, testu liburuak,

mapak eta abar derrigortzen dituzte. Hori dena egin dute, baina erantzun handia izaten ari da.

Ingelesa sartzek ez al dio kalterik egin euskarazko ereduari?

Bistan da administrazio batek menu oso deigarria eta modu onean eskaintzen baldin badu, gerta litekeela guraso askok aukera hori egitea. Baina horrelako eskaintzak zer galera ekar lezake? Atzerriko hizkuntzak metodologia egoki baten bidez landu behar dira eta oraingo nafar gobernuak egin duena (eta EAE ere kopiatzen hasi dena) asmo eta gogo politiko bat besterik ez da. Ez daukate oinarri zientifikorik eta irakaslerik. Asmo bat da, ideologia bat, gogo politiko bat, nahi bat, eta horretarako eraikinak egin dituzte, dirua badagoela azaldu, jendea beka sendoekin Londonera edo Vancouverera (Canada) bidali... Baina horrek ez du gorpuzten aukera bat.

Horrelako menu batek, bederen, bi motatako jendea erakartzen du:

1. Nahiz eta ez egon erabat ados eskaintzen den moduarekin, aukera hori berez ona dela ulertzen dutenak.
 2. Buru belarri ados daudenak.
- Bigarren horiek ez dira hainbeste eta leku guztietan egoten dira botereari jarraitzeko beti prest.

Badira euskararen aurkaria ez litzatekeela izan behar uste dutenak. Eta baita ere, euskararen aurka antolatutako eskaintza dela uste dutenak. Eta besteak beste, guk badakigu, Nafarroan zehar hedatu nahi den "hizkuntzen traiera bateratua" -HTB- gisa ezagutzen den apustu hau aurrera eramateko, fakultate honetatik zer motatako irakasleak ateratzen diren eta nola dauden prestatuta. Beraiek ez gaituzte kontuan hartu, ez NUPen betidanik ditugun irakasle ikasketak, ez hizkuntza elebidun eta eleanitzean aspalditik lanean ari diren ikastetxe eta ikastolak. Eta noski, herritarra ez dago hiperinformatuta, ia gauza gutxitan edukitzen ditugu gauzak argi. Orain arteko guztia suziriak izan dira. Ikusiko dugu jaiak bukatzen direnean jendeak zer esaten duen!



Bi urterako telebista itzaliko nuke. Eta ez berez, kultura eta hizkuntzaren garapenerako tresna desegokia dela pentsatzen ez dudalako, baizik eta, alde bategatik, bera gabe bizitzen jakitea ere, ona delako; eta bestetik, euskaldunok hartu ditugun ohitura eta erabilerak hausnartzeko eta asko eta asko uxatzeko.

ESKOLA AGENDA: kulturaren eta hizkuntzaren transmisio eta komunikaziorako bitartekoa



Alberto de Abajo, Dijitalidadeako kidea.

Abiapuntua

2008/2009 ikasturtean, *Bermeoko Euskara Zerbitzuarekin* batera, *Iruñe Allika* eta *Bittor Uriartek* hango toponimiaz egindako ikerketa digitalizatzeaz gain, leku izenen transmisio eta jendarteratzeko komunikazio plana burutu genuen. Bitartekoetako bat **Eskola Agenda** izan zen. Eskola bakoitzari bere agenda berezitua egin zitzaion, diseinu bereziaz, eduki lokal komunaren oinarripean.

2009/2010 ikasturterako sortu genuen Bermeoko Eskola Agendak kimu berri bi izan ditu hasi berria den ikasturtean. Bermeoko hezurdura hartan sasko egin dugu, eta 2010/2011 ikasturterako Eskola Agenda bana izango dute Arrasaten eta Larrabetzun.

Dijitalidadea s.l.-n, euskarazko ondarea digitalizatzeaz gain, herritar gehienengana helaraztea dugu helburu. Sinergia horretan euskaraz lekuan lekuko, Euskal Herriko zein munduko hezkuntza eta kultura edukien transmi-

siorako nola ikasle-irakasle eta gurasoen arteko komunikaziorako bitarteko egokia sortu nahi izan dugu.

Heldulekua

Gure hezkuntzan ohiko errealitatea dugu eskoletako irakasleak bizi ez diren herrietara tokialdatu behar izatea, euren jarduna burutzeko. Eta herri horrekin duten kontaktua, gehienbat, eskolako testuinguruan izaten da. Ez dago hango hizkuntza, hango kultura, kirola eta elkarrean jarduna eta izaera, hango bizimoduan indarrean diren ohiturak, erritualak, jai egunen sinbologia, historia... ezagutzeko aukera eta bitarteko formal askorik.

Baina ez da irakasleen egoera bakarrik. Ez dira irakasleak lekualdatzen diren bakarrak. Edozein herritara etorri berri asko gara. Adopzioan jasotako herriaren izana gehiago ala gutxiago ezagutuko dugu. Elkarrekintza sozial edo kulturalaren bitartez garatuagoa izango dugu errealitate horren transmisioa, hango paisaia bihurtu ahala.

Errealitate hori eta, egungo transmisioan, belaunaldien arteko harreman etenaren ondorioz bizi dugun hutsunea, oso kontuan izan dugu agendaren egituraketa eta mamia lantzeko orduan.

Elkarren berri

Eskola Agenda, kulturaren eta hizkuntzaren transmisiorako eguneroko euskarria izateaz gain, komunikazioan sakontzeko aukera ere bada. Eta, modu batean edo bestean, agendaren erabiltzaileak (ikasleak, irakasleak eta gurasoak) kontuan hartu izan ditugu propo-



samenean. Funtsean, haurren eta gazteen heziketan, osagarri direlako eskola eta familia.

Eskola Agenda bat egiteak, berez, ez dakar berrikuntza handirik eskolako materialgintzaren alorrera. Euskarri horretan, lehendik ere, badira hamaika agenda-eta. Aldea, nabarmena bide batez, abiapuntuari eta helburuei dagokie.

Lekuan lekuko edukiak

Eskola Agendaren egituraketan berebiziko garrantzia dute lekuan lekuko edukiek. Larrabetzun *ti-teu* edo *txakada baten* esaten den legez, Bermeon *Dxakada baten* esango da. Arrasateko herriak Udalaizpean bere dragoiari

diosala egiten dion bitartean, Larrabetzuko akerrak eta ahuntzak Bizkargitik gora ibiliko dira.

Hilabete bakoitzari hasiera ezberdina emango diogu, eta diseinuan ere urtaroen joan-etorriak isla izango du. Kolore hotz edo epelak konbinatuz.

Beste hizkuntzetan bezala, euskaraz, baditugu gure hilabeteen joan-etorriak deskribatzeko esamoldeak: "Urtarril hotza, neguaren bihotza", "Azaroa hotz, negua motz"...

Hilabete bakoitzari dagokion esamoldearekin batera, herri horretako auzo, jolas edo historia garatuko dira, eskolaren beharrianen arabera. Bermeon, esaterako, herria osatzen duten auzoen deskribapenari egin zaio erreferentzia, auzo horietako alkate edo alkatesaren irudia bertoko erraldioen irudiz jantziz. Arrasaten, ostera, berreskuraturiko antzinako jolasekin hasiko dituzte hilabeteak. Eta Larrabetzun, hango historiaren pasarteak ezkutatuz, asmakizunak proposatu dira, desitxuraturiko argazkiekin puzzleak osa ditzaten.

Agenda astea argi egituratu da, eta orrialdeetako goiburuek eta orri-oinek eduki asko batzen dituzte. Eduki lokaletakoa esaerak (*Edan bako mozkorra, Berba egin baju eta urrin ailegeu...*), berbak (*sustrukue, ogi-gaztaia, tatalea...*), zirtoak (*Zer moduz klasean? Ondo, amaitzen danean...*) eta esaldi eginak (*Heu baz egoteko artxoal!*). Horiek guztiak, aste bitik behin, Koldo Izagirrek batutako eta sortutako munduko errefrau eta asmakizunekin txandakatzen dira.

Eduki orokorrak

Izan ere, ez dugu ahaztu nahi izan munduko parte ere bagarela, eta, horretarako, munduko herrialde askotako errefrauak batu eta gureekin uztartu ditugu. *Mingotsak dira isuritako malakoak, mingotsagoak isuri bakoak*



(irlandarren jakinduria), *Berbak ipotx, eginak erraldoi* (suitarren jakinduria) edota *Haurra buztinezkoa da* (armeniarren jakinduria), adibidez.

Horrez gain, munduko esaera zaharrei txanda hartuko die proposatutako hainbat asmakizunek. Asmakizun horiek irakasleek baino ez dituzte izango, eta material didaktiko legez erabili ahal izango dituzte.

Bestalde, astero, guraso, irakasle eta ikasleentzat interesgarria izan litekeen eta euskarazko kulturari, hezkuntzari zein informatikari buruzko gaien webgune bat proposatuko da: <http://eghjolasak.ulibarri.info/>, <http://www.armiarmia.com>, <http://guraso.com/>...

Hilabetearen amaieran, bestalde, biografia bat jartzen da. Koldo Izagirrek munduko 10 hurren biografia jaso eta garatu ditu. Familia txiro batean jaiotako Pakistango *Iqbal Masih*-ren alfonbragilearena, Kanputxeako minek zigortutako *Song Kosal*-ena, Afrikako umeek urez hornitzeko sutsuki borrokatu den *Ryan Hreljac* kanadarraren istorioa...

Alegia, Disney Channel-*ez gain, badagoela beste mundu bat erakutsi nahi da.*

Asmo informatiboa eta oinarri funtzionala

Aipatu ditugun edukiez gain, herri bakoitzeko kulturaren, kirolaren eta bestelako elkarten gaineko informazioa uztartzen da agendan bertan. Udal zerbitzuak, garraio bideen informazioa, eskola egutegi eta ordutegi, or-



dutegi osagarria... Erabiltzaile guztientzako baliagarria den informazioa pateratu dugu.

Guraso eta irakasleen arteko informazio trukerako aukera ere zabalik utzi dugu.

Lehen Hezkuntza, hasteko

Eskola Agenda, batez ere, LHrako bideratuta dagoen egitasmoa da.

LHko ikasleak idazketa eta irakurketa prozesuan murgiltzen dira. Horren gaineko ohiturak sortzea lagungarria da haurren prozesua dinamizatzeke. Horrez gain, hainbat kasutan, euren lehenengo etxeko lanekin hasten dira. Ardura handiagoa eskatuko zaie, eta autonomiaren garapenean beste antolaketa egituratuagoa behar dute. Eskola Agenda lagungarri izan daitekeela koan gaude. ●

Informazio gehiagorako: a.deabaja@dijitalidadea.com/675.006.627

URRIA

AGIRRE AUZOA AMETZAGA ETA LANDABASOKO ERREKEN ARTEAN KOKATUTA DAGO, ARANE ETA SAN MIGEL AUZOEN BITARTEAN. ZUMARRIETAKO LANDATIK MENDEBALDERA SAN PELAIKO ALDEKO ISURIKO ZATI BAT ERE (TXAOLETA IZENENKO BASERRIN EREMUA) HARTZEN DU.



Pentsamenduaren autonomia eta ikuspegi kritikoa lantzeko liburua: IDAZLEA ZEU ZARA, IRAKURTZEN DUZULAKO

Joseba Sarrionandiaren ipuin laburrak, mikroipuinak

Liburua berria eta berritzailea da. Sarrionandiak izenburuan iradokitzen duen moduan, idazketa irakurketarekin osatu eta biderkatzen da. Haren esanetan, irakurketa bakoitza berridazketa bat da. Beraz, testuak argitaratzen den mementoan hasten du bizitza.

Idazleak kontatzen duenez, ipuin bat asmatzea errealitateari harresian leiho bat zabaltzea da, bestaldean topatuko denaz jabetu gabe oraindik, zalantza, beldur apur batekin. Berak leihoa zabaltzen du, zerbait seinaltzen du beharbada, baina lagunari dagokio begiratu eta nahi duena ikusteko libertatea.

133 ipuinak marrazkiz lagundurik daude. Ipuin beste marrazki dago liburuan, ia guztiak Lierni Altubek egindakoak, eta haiek ere bizitza propioa hartzen dute.

Liburuaren mamia, irakurle guztiei begira

Liburuan aurkituko dituzuen ipuinak mikroipuinak edo ipuin laburrak dira. Joseba Sarrionandia da euskaraz generoa gehien eta sakonen landu duena.

Liburuaren sarrera gisa, irakurlea liburuaren eta haren nondik norakoaren bidean kokatuko dituen testu batzuk daude. Haien ondotik, 40 ipuin pasatxo osaturiko hiru atal nagusi daude:

1. Leihoak egiten zituen neskatooa: atal horretan irudimenaren indarra da

nagusi, eta fantasia eta surrealismo puntu bat lagun ditu.

2. Bibazorrien izurritea: eskola du gai nagusizat, eta eskola horrek jendarte osoaren alegoria gisa ere jokatu du.

3. Unibertsoaren historia eta beste istorio batzuk: itxura entziklopediko baten azpian gai soziologikoak ere agertzen ditu.

HIK HASIK eskolaratu nahi izan du

Joseba Sarrionandiak idatzi dituen aurreko liburuek eman diguten gisan, honek irakurtzerakoan gozatu eta pentsatzeko aukera eman digu, batez ere. Gozamen horren ondoren, liburuari etekin pedagogikoa ateratzea otu ziztzaigun, pentsatzea, eztabaidatzea, ikuspuntuak eman eta besteenak kontuan hartzea, horiek guztiak hain beharrezkoak izan arren, tamalez hain gutxi lantzen diren garai hauetan. Beraz, liburuak dakarren berrikuntza nagusia haren hedapena da.

Liburua, Joseba Sarrionandiaren aurreko liburuek izan dituzten hartzailengana ez ezik, eskolako haur eta gazteengana ere hurbildu nahi izan da.

Ipuinen egokitasunaz eta eskaintzen duen paradaz oharturik, **hik hasik** liburu eskolaratu nahi izan du. Horretarako, bi tresna diseinatu ditugu, liburu erabiltzeko iradokizun pedagogikoen gidaren eta eskolei eskainiko zaien ikuskizunaren bidez.



Liburuaren erabilera didaktikoa

Leku aproposa da leihoa gogoeta egiteko, eta liburuak pentsatzeko leihoak zabaltzen dituela iruditu zaigu. Hauxe duzu gonbita ikasleekin leiho bat marraztu eta handik, patxadaz, ikusten duzuenaren gainean hausnartzeko, galderek ez dutela erantzun bakarra jabetzeko, eta, zergatik ez, amets egiteko.

Guk ere geure burua leihoan irudikatatu dugu, hezitzaileekin batera handik begira. Eta liburuaren erabilera pedagogikoa errazteko gida bat prestatu dugu iradokizunekin. Liburuan, beraz, ipuinekin gogoeta egiteko hainbat

idea eta eredu aurkituko ditugu, iradokizun gisa eskolan, aisialdian edo etxean erabiltzeko. Gida horretan ondorengoak jasotzen dira:

1. "Ipuin laburrak" genero literarioaren historia eta

ezaugarriak, liburuaren gaineko azalpenekin batera.

2. Autoreek, testuarena eta marrazkiena, emandako argibide batzuk. Asmo berezi honetarako idazleak eta marrazkilariak emandako informazioa, hain zuzen.

3. Ipuin batzuen inguruan gogoeta egiteko **hik hasik** prestaturiko hainbat ideia eta eredu aurki daitezke iradokizun gisa. Adibideak dira, Hik Hasikoen begiradak, erabiltzaileak, nahi badu, osatu ahal izango dituenak.

4. Aurkibideak: pedagogikoa eta gaikakoa. Pedagogikoan, ipuin bakoitzean zer eduki edo balio landu daitezkeen, eta, orientabide moduan, zer adinetakoentzat izan daitezkeen egokiak.

Hainbat gaitasun lantzeko baliagarri

Ipuinen lanketak hainbat gaitasun orokor eta espezifiko lantzeko balio badu ere, *Elkarrekin bizitzen ikasi*, *Komunikatzen ikasi*, *Pentsatzen ikasi* eta, batez ere, gaitasunak garatzen laguntzeko oso baliagarri izan daiteke.

Zabalik dauden leihoak

Leihotik begira jarri bazarete inoiz, badakizue zenbatezinak direla handik ikus eta antzeman daitezkeen gauzak. Inork ere ezin izango du halako leihoetan paratzen den jendearen begirik kaiolatu. Zabaldu leihoa eta hitz egin, hitzek zer esan nahi duten jakinda pitin bat errazagoa izango baita hitz egitea.

Zabalak eta zabalik dauden leihoak nahi ditugu. Mundua, eta bizitza, ahalik eta gehien ikusteko, geure begiz. Ahalik eta koloretsuen!

Adinka sailkatua



Ipuinak adin jakin baterako ez badaude ere, iradokizun gisa, adinka sailkatutako proposamena egiten ausartu gara, inori baliagarri suerta dakiokela koan.

Baina, batez ere, narrazio bakoitzak eskaintzen dizkizun une magiko horiek goza ditzazun da gure nahia!

Ipuinak nola landu, iradokizun gisa

Ipuin guztiak adinaren eta gaiaren arabera sailkatu baditugu ere, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan edo helduagoekin nola landu bina adibide jarri ditugu.

Ondoren, horietako bi aukeratu ditugu. *Leihoak* deritzan ipuinean Haur Hezkuntzan lantzeko ideiak proposatzen ditugu, eta *Topsecret* ipuinean helduagoekin lantzeko ideiak:

LEIHOAK (16. or.)

Hezitzaileak irakurriko du ipuina.

Irakurri aurretik:

Entzuleen arreta erakartzeko giroa sortzea komeni da. Taldean landu behar bada, ahal dela gozo. Biribilean eserita jar gintezke.



Girotzeko, halakoak esan genitzake:

- Ikusten ditugun gauzetan (atea, etxea, mendia, txakurra...) bakarrik pentsatzen dugu, ala, pentsamendu bitxiak ere izaten ditugu?
- Zer ikusten duzu zure leihotik?
- Egoten al zara leihotik begira?
- Bada, irakurri behar dudan ipuinak, *Leihoak* izenekoak, leiho bitxiak ditu. Erne! Ea zer gertatzen den. Horretaz gero hitz egingo dugu.

Irakurri ostean:

- Isiltasun unetxo bat utzi, haur guztiak begiradarekin erakartzen saiatu.
- Galderak ahalik eta era irekienean egitea komeni da. Interesa duten hartan arreta jarrita, denen parte hartzea



eta denek hitz egin dezaten errazteko.

- Gustatu al zaizue? Polita iruditu al zaizue? Zer izan duzue gustuko? Zer gehiago? Eta zuk, (Olaia), beste zerbait esan nahi duzu?

- Zeresaten da ipuinean? (Txikienei galdera hori zuzenean egin beharrean, edukia berreskuratuko dugu, gehien zer gustatu zaien galdetuz.)

- Hainbat interpretazio ager litezke, kontrajarriak, agian. Hori ona litzateke. Horrela, bakoitzaren interpretazioa arrazoitzea eskatuko genuke.

- Amama agertzen da... Ikusten duenaz hitz egiten du... Begien garrantziaz hausnartzen du... Kanpokoaz eta barrukoaz ari da...

- Itxi begiak, ea zer ikusten duzuen. Bakoitzak bere irudimenezko leihotik ikusten duena adieraz dezake.

Zertarako balio dezake: leiho mota desberdinez aritzeko, munduarekiko arreta lantzeko, sormena eta irudimena sustatzeko...

Zer gehiago egin daiteke: antzetzutu, norberak marrazkiaren bidez ipuina adierazi eta abar. *Amamaren leihoa* ipuina (21. or.) irakur genezake. Edo, *Barruak*, 11. orrialdekoa, ipuinen arteko erlazioa aztertzeko.

Berriro irakurri: saioa amaitzean, edo beste egun batean, ipuina berriro irakur liteke, besteei entzundakoarekin interpretazio osatuagoa egiteko aukera eskainiko baitiegu.

Ipuina sorgenezake: ni hasiko naiz esaldi bat esanez, gero beste batek beste bat, eta horrela jarraituko dugu denen artean ipuina osatu arte.

TOP SECRET (99. or.)

Bakoitzak bere kabuz irakurriko du ipuina. Nahi izanez gero, ondoren, ikasle batek edo hezitzaileak irakur dezake ozen.

Hausnarketa girotzeko asmoz:

Zuek ba al duzue sekreturik? Zer motatako sekretuak dira horiek? Gaurkoan *Top secret* deritzan idatzia aztertuko dugu:

- Bidezkoa al da gezurretan aritzea sekretuak gordetzeko?

- Une honetan, ba al duzue lagunen batekin partekatzen duzuen sekreturik?

- Gorde al diozu inori inoiz sekreturik? Jakin edo zabaldu al zen?

- Halakoetan zer sentitzen da?

- Ikasle batek ozen irakur lezake edo, idatzia denei banatu, eta irakurtzeko denbora eman diezaiekegu.

- Zure ustez, zer esan nahi du esaera zahar honek?: "Bati esaten zaiona ha maikak jakiten du".

Irakurri edo entzun ondoren:

- Halakoak esanez eragin liteke eztabaida:

* Zer egingo zenukete halako zerbait jakingo bazenute?

• Bada, ni, isildu! Kar-kar-kar...

• Ni ere bai.

• Halako egia handiak jakitea arazo bihurtzen da.

- Beste bide bat ere har liteke, zuzentasunarena edo zentzugabekeria-rena:

* Zentzugabea da, mundua biribila baita eta ez laua. Nola gorde, bada, halako gezurra?

Zertarako balio dezake: "egia jakinak", sekretuak, konplizitatea eta abar aztertzeko.

Adibidez: ezagutzen duten "egia jakin" garrantzitsuena idazteko eska diezaiekegu bakoitzari. Ondoren, denak bildu eta "gelako egia jakinen zerren-

da" osa dezakegu.

Gero, alderatu dezakegu zenbatek bat egiten duten "egia jakin" garrantzitsuena adierazterakoan, denak ados ote dauden egia guztiekin, eta abar.

Zer gehiago egin liteke: nor bere iritzi kritikoa idatz dezake. Mundua hobetzeko asmoz, bakoitzak gaur egungo bizitzatik zer aldatuko lukeen, edo zer nahiko lukeen egia bihurtzea, idatz dezake. Nor bere "sekretua" asma lezake, besteei aurkeztu, eta abar. Edo, irudimena lantzeko, "gezurra" asma liteke eta besteei zabalduz, "egia jakina" bihurtu.

Sekretua ipuina (39. or.) ere irakur liteke, bi ipuin horien artean lotura egiteko.

Joseba Sarrionandiaren desira

"Espero dut irakurketa gozagarria izango zaizula. Hainbeste oinaze eta hainbeste umiliazio ikusten diren mundu honetan, batak besteari hainbeste min eragiten diola, atsegin apur bat eman ahal izatea ederra litzateke".

Liburua non eskuratu

Ohiko liburu dendetan erosi ahal izango da liburua. Kasu horretan, gida nahi duenak www.bikbasi.com ataritik jaitsi ahal izango du. Hala ere, nahi duenak, www.bikbasi.com helbidean ere eska dezake, eta Hik Hasik erabilerara pedagogikoa egiteko iradokizun didaktikoen gida bidaliko dio posta arruntaz. ●

Informazio gehiagorako: bikbasi@bikbasi.com edo 943 371 408



KOSMODISEA 10-II

Izena eman!
KOSMODISEA
 900 840 842
 www.kosmodisea.net
 info@kosmodisea.net

Ekin... Sortu!

Kosmodisea 2010-2011 martxan dago.

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako* diseinaturiko 2.0 abentura.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren ekimena.



Fono Planeta



Zuen proiektuaren beharra eta aukerak zehaztu.
 Audio formatuan kaleratu: debate, abesti, irratsaio... baten bidez.



Ikono Planeta



Zuen proiektua planifikatu, garatu eta gauzatu.
 Lan hau irudikatu (irudiak + testuak + narrazioak).



Mito Planeta



Azken lana, zuen abenturan zehar garatu duzuen proiektuaren promozioa eta hedapena bideo batean plazaratzea.



GIPUZKOA
 Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa
 Berrikuntza eta Inbuzazio (Gizarteko Departamentua)
 Departamento de Innovación y Sociedad del Concierto
 www.gipuzkoainnovacion.net

EUROPAR BATASUNA
 UNION EUROPEA
 *50 EUROPAKO GIZARTE FUNTSA
 FONDO SOCIAL EUROPEO 50%



***Heziketa zikloak egutegi berezia izango du aurten**



Zer emozioek sustatzen dute, eta nola, pertsonaren garapen egokia?



Emozioek gizakiak bizi dituen prozesu guztietan parte hartzen dute, jaiotzen garenetik gurekin ditugu; izan ere, bizi ditugun esperientzia guztietan sentitzen dugu emozioen bat. Sentitzen dugunak eta sentitzeko moduak indar izugarria du gutako bakoitzarengan. Gure emozioetan arreta jartzea lagungarri izango zaigu geure burua hobeto ezagutzeko eta nolakoak garen eta zer gaitasun ditugun jakiteko.

Gure bizitza pertsonalaren eta gure harremanen kalitatea, hein handian, gure emozioak bizitzeko moduaren araberakoa da. Hala ere, gure hezkuntza prozesuan ez dugu halako ikasgaiarik izan. Zaila gertatzen zaigu gai hauek hitz egitea, zer gertatzen zaigun eta zer gaitasun ditugun edo nola aurki ditzakegun ohartzea. Eguneroko gertaeak bizitzeko eta horiei aurre egiteko erabiltzen dugun ikuspegi positibo-



Juana Maria MAGANTO

EHUKO IRAKASLEA

ren menpe dago zoriona. Hori guztia, zorionez, ikasi egin daiteke.

Hezkuntzan emozio positiboak sustatzea osasunean, buruaren ongizatean eta bizi kalitatean inbertitzea da,

pertsonari indar handien ematen dioten alderdiak ezagutzea, garatzea eta alderdi horietan aurrera egitea esan nahi baitu. Kontua ez da emozio negatiboak bazter uztea, baizik eta emozio positiboak ardatzea eta sustatzea, zailtasunen aurrean “airbag” baten moduan jokatzeko baitute. Egoera zailak hortxe daude, eta, askotan, ezin ditugu aldatu, baina bizitzako egoera horien aurrean dugun begirada eta jarrera alda daiteke. Hazteko eta aurrera egiteko edo modu osasungarrian bizitzen ikasteko aukera moduan ikusi behar ditugu, zoritxarren aurrean indartuta irteteko.

Baina, zer emozio positibok sustatzen dute pertsonaren garapen egokia? Galdera horri erantzuteko Seligman aitapuko dut, gai horren inguruko iker-tzaile onenetako bat; Seligmanek eske-ma bat proposatzen du, landu nahi den garaiaren arabera kontuan hartzeko.

Beraz, honako hauek garatzea kome- niko litzateke: iraganak sortzen dizki- gun emozio positiboak, besteak beste, asetasuna, norberaren errealizazioa, harrotasuna, baretasuna, esker ona... Gure iraganari buruz ditugun pentsa- menduek zehazten dituzte emozio ho- riek. Baita orainarekin lotutako emo- zioak eta alaitasuna, lasaitasuna, grina, atsegina eta jariakortasuna adierazten dutenak ere. Eta, jakina, etorkizunari buruzko emozio positiboak, besteak beste, baikortasuna, itxaropena, fedea eta konfiantza, gure etorkizunari buruz ditugun pentsamenduek zehazten di- tuztenak.

Pertsona batek norberaren garapen egokia lortzeko ikasi eta garatu behar dituen gakoak zein diren zehaztu be- harko banu, honako hauek azpimarra- tuko nituzke:

- Gizarte harreman esanguratsuak eta osasuntsuak garatu eta zaindu.
- Gustuko dituen gauzak egin.
- Bizitza antolatu eta planifikatu.
- Helburu esanguratsuak lortzen

Gure bizitza pertsonalaren eta gure harremanen kalitatea, hein handian, gure emozioak bizitzeko moduaren arabera da. Zaila gertatzen zaigu gai hauetaz hitz egitea, zer gertatzen zaigun eta zer gaitasun ditugun edo nola aurki ditzakegun ohartzea. Eguneroko gertaerak bizitzeko eta

horiei aurre egiteko erabiltzen dugun ikuspegi positiboaren menpe dago zoriona.

saiatu eta jarraikia izan.

- Itxaropenak eta nahiak gutxitu.
- Pentsamendu positiboa izan.
- Zailtasunei modu eraikitzailean aurre egin.
- Arreta orainean jarri.
- Nork bere burua onartu eta balio- etsi.

Emozio positiboek bizitzan arra- kasta izatea ekartzen dute, esparru eta adin guztietan. Beraz, garrantzitsua da horiek hobetzea. Emozio positiboak ikasi eta garatu egin daitezke. Familiak, eskolak eta elkarteak pertsona gizatia- rragoak, gaitasun handiagokoak, aske- agoak eta elkartasuna agertzen dute- nak nahi dituzte, eta, hori lortzeko, bizi- tzan zehar horien ikaskuntza eta hobe- kuntza txertatzeko erronka dute, zo- rroztasun zientifiko, eta, beraz, ezagu- tza teorikoaren eta praktikoaren kalita- tean oinarrituta.

Gai horretan gehiago sakondu ahal izateko honoko liburu hau gomenda- tuko nuke: Maganto, C. eta Maganto J. M. (2010), "Cómo potenciar las emo- ciones positivas y afrontar las negati- vas", Pirámide argitaletxearena. Libu- ruak emozio positiboek pertsonen bizi- tzan eskaintzen dizkieten aukeren ikuspegi bat ematen du. Gaia bi ikus- puntutatik aztertzen dute: alde batetik garapenarekin lotutako ikuspegitik, hots, haurtzarotik zahartzarora arte, eta, bestetik, hezkuntzaren ikuspegi- tik, hobekuntza pertsonalerako propo- samenak egiten baititu. Liburu horren egileek modu argi eta didaktikoan azal- tzen dute zer diren emozioak, horien ezaugarri nagusiak eta gure eguneroko bizitzan nola funtzionatzen duten. Gai- nera, emozio positibo eta negatibo na- gusien ikuspegi bat aurkezten dute, gudan duten eragina zehaztuz eta horietako bakoitza sustatzeko edo ho- riei aurre egiteko orientabide aberatsak eta zehatzak emanez. Honako hauek lortu eta ikasi behar ditugu:

- Emozio positiboak eta negati- boak ezagutzen.
- Emozio horiek zergatik gertatzen diren aztertzen.

Emozio positiboak ikasi eta garatu egin daitezke. Familiak, eskolak eta komunitateak pertsona gizatiaragoak, gaitasun handiagokoak, askeagoak eta elkartasuna agertzen dutenak nahi dituzte, eta, hori lortzeko, bizitzan zehar horien ikaskuntza eta hobekuntza txertatzeko erronka dute, zorroztasun zientifiko, eta, beraz, ezagutza teorikoa- ren eta praktikoaren kalitatean oinarrituta.



- Oinarri biologikoak eta organis- morako dituen ondorioak antze- maten.
- Gizarte osagaiak eta baldintzak ze- hazten.
- Adierazteko moduak finkatzen.
- Ezagutzeko, erabiltzeko eta hobetzeko estrategiak sustatzen.
- Emozioak garatzeko esku hartzeko jarraibideak hautematen.

Azkenik, atal bat aurkezten dute emozioak hainbat ikuspuntutatik nola lan daitezkeen zehazteko: adimen emozionala, osasun integrala, hitzen boterea edota pentsamenduaren inda- rra.

Liburu haren edukia onuragarria da dinamika pertsonala eta harremanak hobetzeko interesa duten pertsona guztientzat, profesionalak izan edo ez. Psikologiaren eta hezkuntza positiboar- en ikuspegitik eskaintzen dituen esku hartzeko baliabideak esparru kliniko- an, hezkuntzan, gizartean eta familian aplikatu daitezke. ●

HAUR TXIKIEN MUNGIMENDUAREN BEHAKETA



Jardunaldiak

HIK HASI jardunaldiak prestatzen ari da Haur Hezkuntzako hezitzaileentzat, txikienekin dabilenentzat, bereziki.

Azaroaren 5ean (ostirala) DURANGON - Azaroaren 6an (larunbata) DONOSTIAN.
Kopuru mugatua bi saioetan.

* **Myrtha Hebe Chocler.** *Buenos Aireseko (Argentina) Psikomotrizitate Eskolako zuzendaria. Psikologian eta Fonoaudiologian doktorea den emakume argentinar hau Fundari (Umeen Eskubideen Aldeko Fundazioa) erakundeko zuzendaria da. Kargu bera du Buenos Aireseko (Argentina) Catamarcako Unibertsitate Nazionaleko Umeen Garapenaren Arreta Goiztiarraren ikasketetan.*
- Mugimendu askatasunaren garrantzia subjektibitatearen genesi goiztiarrean. Haren baldintzak eta arriskuak.

* **Elena Herran.** *EHUko irakaslea. Maistra, Psikomotrizitatean espezialista eta Psikologian doktorea. Urteak daramatza haur txikien ikerketak egiten.*
- **Jauzia, otsoa eta etxetxoa.** 2 urtekoekin egindako esperientzia.

**informazio osoa eta izena emateko aukera: www.hikhasi.com
943 371 408**

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.
Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

urria

berriak

XI. hik hasi Udako Topaketak



450 kide ibili dira aurtengo Hik Hasi Udako Topaketetako 21 ikastaroetan, goiz eta arratsalde. Agian horregatik, inoiz izan den kopururik baxuena izan da aurtengoa.

XI. Hik Hasi Udako Topaketak uztailaren 1ean eta 2an izan dira, Donostiako Pedagogia Fakultatean eta Ekin-tza ikastolan. Ohi denez, HIK HASIk eta EHUKo Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailak antolatu dituzte elkarrekin Topaketak.

Felix Basurko eskolako eta EHUKo irakasle ohia eta Hik Hasiko kolaboratzailea omendua izan da. Eskola eta

unibertsitatea elkarrekin aritzearen nahia agertu du betidanik Felixek eta Topaketak elkarrekin antolatzeko sustatzaile fina izan dugu. Gure esker handienak berarentzat.

Zailtasunak zailtasun, Udako Topaketek aurrera egingo dute

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egin duen diru laguntzen murrizketak, alde batetik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza ezak, bestetik, topaketak antolatzera zailtzen badu ere, harpidetzen igoyerak asko lagundu du egitasmoa mantentzen.



Kafe solasaldiak

Ikastaroen tartean eta kafea eta pastak dastatuz, bi saio egin ziren. Argazkian, *Antzerkizaleen elkartearen* aurkezpen solasaldia duzue. Horren ondoren antzerki ikuskizuna egin zen.

Hurrengo egunean, aldiz, herriko ondare kulturala ezagutarazteko egin den *Eskola agenda* aurkeztu zen.





ELHUYAR
KOLTE LOAK

ELHUYAR 360° IKASGELA

ELHUYAR FUNDAZIOKO **NOBEDADEAK 2010-2011** IKASTURTE BERRIARI BEGIRA

IKASGELA BARRUAN



MUNDUKO ETA EUSKAL HERRIKO ATLASA

Geografikoa eta politikoa.
2010eko edizio berria.
12-16 urte
26€



ELHUYAR SINONIMOEN KUTXA

Sinonimoen eta antonimoen hiztegia.
3. edizioa, osatua eta berria.
19,50€



ARMIX MAX-MIX

Zz
Esperimentu-
bilduma.
8-10 urte
10€

IKASGELATIK KANPO



SIMON BLOOM, GRABITATEAREN ZAIINDARIA

ZzL
Michael Reisman
Gazteei zuzendutako
dibulgazio-narratiba.
12-16 urte **12€**



IA DENAREN HISTORIA LABUR BAT

Z izpiak
Bill Bryson
Helduentzako dibulgazio-
obra unibertsala.
16 urtetik gora
15€

Informazio gehiago eta eskaerak: www.elhuyar.org/edizioak eskaerak@elhuyar.com 943 36 30 40

Eskoletarako prezio bereziak ditugu.

IRAKASLEENTZAKO IKASTAROAK

Elhuyar Fundazioko Hizkuntza Zerbitzuen taldeak eskainita. IRALE programaren barruan % 100 finantzatuta daude.

- **ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN ALORREKO TERMINOLOGIA TEKNIKOAREN ETA ADIERAZPIDE BEREZIEKIN LANKETA**
- **GOI-MAILAKO HIZKUNTZA-GAITASUN PRAKTIKOA (BEREGAITASUN-MAILA)**
- **ITZULPEN-TEKNIKEN EZAGUTZA TEORIKOA ETA GAITASUN PRAKTIKOA**
- **INFORMATIKA EUSKARAZ**

Ikastaroen eskaerak zuzenean IRALE programaren bitartez egin behar dira.

Informazio gehiago: hz@elhuyar.com 943 36 30 40

“Ahozko hizkuntza lantzen” 25. monografikoa kalean



Harpidetuz gero,
monografiko honekin batera
aurreko beste monografiko bat
eta Baliabideen Gida DOAN

KOSMODISEA 2010/2011

5. urtez antolatzen den Kosmodiseak bi oinarri ditu: batetik, talde lanarekin kultura ekintzailearen balore, konpetentzia eta gaitasunak lantzea, eta, bestetik, teknologia berrien erabilera, wiki, blog, simulatzaile eta multimedia ediziorako programekin praktikan jartzea.

Iaz, 1.493 ikaslek, 80 irakaslek eta 41 zentrok hartu zuten parte. Parte hartzaile haiek egindako gomendioak jarraituz, ezaugarri berriak ezarri zaizkio Kosmodiseari.

Informazio gehiago:

www.kosmodisea.net edo info@kosmodisea.net
edota 900 840 842 telefono zenbakian.



Pedagogia 2011 Habanan

Urtarrilaren 24tik 28ra izango da aurtengo biltzarra.

Azken Topaketetan, 2009an, ia 5.000 hezitzailek hartu zuten parte. 40 herrialde baino gehiagoko ordezkariak izan zen, ehunka ponentzia, ikastaroak, eskoletara bisitak, kultur ikuskizunak eta abar.

2011n, "Hezitzaileen batasunerako topaketak" izenburupean egingo direnak, ildo bera jarraituko dute. Bertan, 19 simposium, hainbat hitzaldi, ikastaro eta eskoletarako bisitak egingo dira.

Inork hara joateko interesa balu, jar dadila gurekin harremanetan.

Azaroaren 15a baino lehen hikbasi@hikbasi.com helbidera idatziz, nortzuk joango lirartekeen jakitea komeni baita ordurako.

Bestalde, nahi duenak, www.pedagogia2011.rimed.eu helbidean informazio gehiago jaso dezake.



Istorio txikiak, mundu handiak Haur eta Gazte Literatura ezagutzen (HGL)



Haur edo nerabe garenean gauza asko dugu ikasteko. Urte batzuk geroago, norbera baino askoz handiagoa den erronkari aurre egin beha izaten diogu, hots, gure inguruan gertatzen diren gauza asko ulertzeko erronkari. Eta baten bat "mundua" ezagutu behar dugula esatera ausartzen da. "Mundua" ala "munduak"?...

Haur eta Gazte Literatura jardunaldiak aukera ona izan daitezke literatu-

rari buruz gehiago jakiteko, joeren berri izateko, metodologiak ikasteko edota egile eta pentsalari garrantzitsuak ezagutzeko.

Hezitzaileentzat eta profesionalentzat, berriz, irakurketaren bidean orientazioa jasotzeko egokia izan daiteke.

Urriaren 22an eta 23an Bilbon

Izena emateko, ondoko helbidean:

www.istoriotxikiak.com

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzako GITARRA ikastaroa

Iaz bezala, ikasturte hasierarekin batera Xirula Mirulak **gitarra** erakusteko ekimena jarriko du martxan. Urteak daramatza Xirula Mirulak haurrekin lanean. Oraingoan, baina, haurrei baino hezitzaileei eta hezitzailegaiei zuzendutako ikastaroa antolatzen ari da. Hain zuzen ere, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan arituko diren irak-

kasleentzako gitarra ikastaroa.

Asmoa maila apalenetik hastea da, hau da, ezertxore ez dakiten irakasleekin. Helburua, ikastaro amaieran, eskola giroko kantuak eta zenbait abesti herrikoi gitarrak laguntzeko gai izatea da; tonalitatea eta erritmoa zainduz.

Urriaren erdi aldean hasi eta ikasturtea amaitu bitartean, astean behin el-

kartzea da asmoa.

Noiz: **ostiraletan**

Ordua: 18:00etan

Iraupena: 75 minutu

Argibide gehiagorako: 943 463 555

edo xirula@euskalnet.net

Helbidea: Catalina Erauso 12
(Amara auzoa). DONOSTIA.



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

>>> Bakerako hezkuntza plana ordezkatzuz, Bizikidetzak demokratikoa eta indarkeriari legitimazioa kentzea plana prestatzen ari da EAEko Hezkuntza Saila. Zein da zure iritzia aldaketa horri buruz?

> FEN berria

Hasteko izen ponposo horren atzean frankismoaren garaiko Formación del Espíritu Nacionalaren bertsio berria dagoela esan beharra dago. Gerra garaiko eta ondorengo milaka biktima ahaztu ondoren, orain kontu hauekin etortzea falta zitzaien. Lotsarik ez dute! Okerrena zera da: EAJ alderdiak berriro salduko gaitu eta Hezkuntzako eragileekin eta langileekin hitz egin gabe, FEN berria onartuko du. *Santi Angulo*

> INTSUMISIOA

Harrigarria da norainoko GORROTOA erakusten duen "bakerako" plan horrek. Ez du inolaz ere herri honen askapenik nahi, eta horretarako, barne sailarekin elkarlanean ikasgeletara gorrotoa, banaketa eta ikasleen "biolentziaren kondena" bilatu nahi dute. Nola da posible, edozein ikastetxeko klaustro batean ados jartzen ez garen gai bat ikasleen ahotan jarraraztea? Zein erru dute ikasleek politikari batzuen burutazioak jasateko? Eskoletako guraso eta irakasleok "bakerako hezkuntzaren" arloari INTSUMISO izan behar dugu. Aurre egin diezaiogun INPOSAKETA honi, eta salatu dezagun alderdikeria. Hezkuntza hori baino askoz ere gehiago da. Herri honen askatasuna nahi dugu eta Herri hontako sektore garrantzitsu bat gara. Egin gaitetzen intsumiso. Soldaduzkaren borroka garaitu genuen, hau ere irabaziko dugu. Gorrotoaren gainetik, herri koloretan, borrokalari eta alaiaren aldeko heziketa bultzatzen dezagun. Gure ikasleek merezi dute, gure herriak ere bai. *Nineu*

> Ikasturte berrian, zaharrak berri

Ikusi, entzun eta irakurri ditut hainbat adierazpen gaiari dagozkionak. Inork ez du argitzen, modu errealean, nola planteatuko den gaia. Asuntua da, hala nola, alde bateko biktimak soilik eraman nahi dituztela eskoletara.

Ezagutu berri ditut Francok hasi zuen gerraren ondorioen hainbat pasarte. Oinarrian, oraingo gorroto berak mugitu zuen faxista hura, inposizioaren gorrotoa. Kaltetu eta biktima asko egon zen guda krudel hartan, baina biktima batzuk bakarrik izan ziren errekonozituak, lagunduak eta goraiatuak. Beste biktimak, guda hasi ez zirenak, baztertuak, izkutatuak, isilduak eta ahaztuak izatera kondenatu nahi zituzten. Askok lortu zuten, nola ez, baina ez guztia. Gaur da eguna, haiei buruz hitz egiten duguna, ezagutzen ez zena argitzen ahalegintzen ari dena, maitatzeko eskubidea zabaltzen ari dena, berdintasunean tratatuak izateko eskubidea aldarrikatzen ari dena...

Historia erreala ezagutzea ezinbesteko baldintza da bide okerrak eta mingarriak indartzen ez joateko, eta hori guztia, batez ere hezkuntzan, jendarte hobea prestatu nahi bada, behintzat. Horregatik, modu itxian, alde bateko biktimak soilik lantzen badira, inposizioaren ikuspegia ezartzen bada... INTSUMISIOA da bidea. *Amagoia Lizarazu*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Seaskako ikastolei ikastetxe pribatuen trataera eman nahi die Philippe Rey prefetak, lagundu nahi duten herriko etxeak mehatxatuz. Seaskako Paskal Indo lehendakariak, aldiz, beraiek zerbitzu publikoa betetzen dutela dio. Eta, zuk zer diozu?

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!


argitalpenak



Euskal soinu tresnen bidaia

Haladzipo / Aritz Garcia
HALA DZIPO


Euskal folklorea ezagutu, dibulgatu, jaso eta aberasteko helburuarekin sortu zen Hala Dzipo Kultur Elkarteak. Xedeari jarraituz "Musika tresnen has-tapenak" liburua, eta "Euskal soinu tresnen bidaia", CD-ROMa, argitaratu dituzte. Trikitixa, dultzaina, alboka, txirula, txistua, atabala, txalaparta eta panderoa ezagutzeko jolas eta ariketa dibertigarriak dakarzkigute. •



Parisepetit

Imanol Azkue / Eider Eibar
AIZKORRI

Gorka Parisera joan da familiarekin oporretan. Hiria ez zaio hain handia iruditu, Turrifelera igota hiria oso-osorik ikusten da. Halere bada handik ikusten ez den gauza handi bat, lurpean dabilen satorra, metroa, entzungor samarra berau. Metro osoa ere paper batean sartzen da. Mutikoak egoera latzean aurkituko du bere burua metroan. 8 urtetik aurrerakoentzat aproposa. •



Beste Gu

Asier Mendoza / Ivan Mata
ELKAR


I. Mikel Zarate Haur Literaturako Saria irabazi du idazle zarauztarrak eleberriarekin. Kristianek banpiroen ezaguriak ditu: ez du bere aurpegia ispi-luan ikusten, usaimena zorroztu zaio, odolak erakartzen du... Aldi berean pareko etxean bizi diren Morgandarrek ere badute beren istorioa. 12 urtetik gorakoentzat da umorez eta irudimenez landutako kontakizuna. •



ihitza aldizkaria

Ingurugela
EUSKO JAURLARITZA

Iritsi da udazkeneko alea. Bidezko merkataritza du gai nagusia. Zein dira ohiko merkataritza-erakundeak? Banku-etikoa, denbora bankua, hots, zerbitzu-trukaketa, eta egungo kontsumo-eredua dira ale honetako proiektuen ardatzak. Halaber etapa guztietarako jarduera interesgarriak eta baliabide ugari agertzen dira. •



Darwin eta diseinu intelijentea

Francisco J. Ayala
GAIK

Kreazionismoa, kristautasuna eta eboluzioa. Templeton zientzia saria jasotako biologoaren liburua itzuli du Julen Kaltzadak. Darwin, kreazionismoa eta EBetan hasi eta azkar hedatzen ari den "Diseinu Intelijentea" izeneko mugimendua. Organismoak guztiz konplexuak dira eta "diseinatuak" izan direla frogatzen omen du... •



Hezkuntza, gizarte eta eraldaketa kooperatiboa

Joseba Azkarraga Etxagibel
LANKI-HUHEZI

Hezkuntza tresna garrantzitsua da edozein herrialderentzat. Gogoeta lan horretan egungo garaiaren oinarriko ezaugarriak agerira ekarri, eta garaiari darizkion hezkuntza-eredu eta erronkak azaltzen ditu, finean, mundua humanizatzeko lagungarri izango den hezkuntza eraikitzeko. •

... nora joango gara?

“Untzi Museoa”

Donostiatik mundura, itsasoan barrena

Ontzi Museoa Donostiako portuan dago, Kotsulatuaren dorretxean. Eraikina XVIII. mendekoa da. Museoaren bi solairu nagusietan iraupen luzeko aldi baterako erakusketak egiten dira, gai monografikoak jorratzeko. Horiek aukeratzeko unean, historian eta kulturaren duten garrantzia hartzen da kontuan. Goiko solairuan neurri txikiagoko erakusketak eta lantegi pedagogikoak egiten dira, eta Museoaren funtsak kontsultatu nahi dituzten pertsonentzako liburutegi espezializatua ere badago.

2011ko otsaila arte, “Euskaldunak eta Pazifikoa. Andres Urdanetaren omenez” erakusketa ikusi ahal izango da lehen bi solairuetan, eta hirugarrenean, “Kontxako Estropaden Historia”ri buruzko tailer didaktikoa.

Museoaren helburua euskaldunek itsasoarekin lotura izan duten historiaren eta itsas ondarearen kontserbazioan, azterketan eta zabal-kundean laguntzea da.

Hezkuntza eskaintza

BISITA GIDATUAK “Euskaldunak eta Pazifikoa. Andres Urdanetaren omenez” ERAKUSKETARA.

Erakusketa horren helburua Ozeano Barean eta Asia Ekialdean izandako



euskal presentziaren historia aditzera ematea da.

Garapen kronologikoak XVI. mendetik, hots, deskubrimenduen garaitik gaur egun arte hartzen du. Balio historiko zein artistiko handia duten piezek osatzen dute erakusketa.

Erakusketaren esparrua zabala da: Elkano, Urdaneta, Manilako Galeoia, Filipinetako Errege Konpainia, XIX. mendeko euskal emigrazioa, XX. mendeko pilotariak Ekialdean, XXI. mendeko borondatezko lankideak...

“Kontxako Estropaden Historia”. Tailerra.

Pasioz betetako estropaden mundura modu dibertigarrian eta partehartzailearen bidez gerturatzeko parada eskaintzen du espazio horrek: zergatik

sortu ziren estropadak gure kostaldean, zer-nolako bilakaera izan duten estropadek, erabiltzen diren ontzien eboluzioa nolako izan den, gure kostaldeko arraunlarien jantziak probatzeko eta arraunlari batek arrauna nola egiten duen simulatzeko txokotxo bat ere prestatu da. Tailerrera edonor joan daiteke, hala nola, eskola taldeak, aisialdi taldeak, euskaltegiak, familiak, behar bereziak dituzten taldeak.

“Elkano, nora hoga?”. Mahai jokoa.

Jarduera horretan Juan Sebastian Elkano eta haren bidaide asko ezagutuiko ditugu. Historiari egindako ekarpenaren analisia: mundua biribila zela egiaztatzearen garrantzia, Atlantikokoaren eta Ozeano Barearen arteko jarraipena, espeziaren balioa...

“Euskaldunak eta Pazifikoa” erakusketa oinarritzat hartuta, mahaijoko, lamina, bideo eta espeziak (intxaur muskatua, kanela...) ere eskuartearen ditugula munduaren ezagutzan hain garrantzitsua izan zen espediziora gerturatuko gara.

“Arrantza erak”. Tailerra.

Arrantza egiteko dauden sistemak ezagutzeko aukera emango digu saioak.

Azalpenen osagarri, bideo bat ikusteaz gain, parte hartzaileek eskulana egiten dute: atunetarako "maluta" bat, hain zuzen. Arrantza arduratsuz eta itsasoko baliabideen zaintzaz ere arituko da saioa. Gainera, aurrez eskatuz gero, arrantzale bat elkarrizketatzeko aukera dago, eta, hainbat belaunaldiren arteko tailerra burutzeko.

“Ondarea zer den ikasten”. Mintegia.

Itsasoarekin lotura duen ondarea gorde eta zaintzea da Ontzi Museoaren zeregina, ikertu eta hedatzearekin batera. Saio horren bidez, Ontzi Museoeko funtsetako eta bildumako ondare balioko piezak jaso ohi duen trataera azaldu eta aztertuko dugu, haren jatorria, egoera, zainketa eta kokapenaren zer nolakoak aztertuko eta ariketa parte hartzaileen bidez ulertarazteko. ●



ONTZI MUSEOA

Kaiko pasealekua 24. 20.003.

DONOSTIA.

Tel: 943-430051. Faxa: 943-431115

<http://um.gipuzkoakultura.net/heziketa-programak.php>

untzimuseoa3@gipuzkoa.net (Amagoia)



Oharrak:

Ordutegia:

- Asteartetik larunbatera: 10:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:30etara.
- Igande eta jaiegunetan: 11:00etatik 14:00etara.
- Astelehenetan itxita.

Prezioa:

Bisita gidatuak eta programa didaktikoak

- Asteartetik ostiralera eta adin guztietarako: euro 1 pertsonako.

Bisita ez gidatuak

- Sarrera orokorra: 1,20 euro.
- Ikasle eta jubilatuak: 0,60 euro.
- 10 urtez beherako haurrek doan.
- Ostegunetan doan.

IBILBIDEAK

“Donostia, itsas hiria”. Ibilbide historiko-literarioa

14 urtetik gorakoentzat.

Ibilbidea Bretxa inguruan hasi ohi da. Han, harresien aztarnak aztertu, ikusi eta hiriaren sorrerari eta garapenari buruz mintzatu ondoren, hiriko Parte Zaharrean barrena, itsas historiarekin lotura duten hainbat espazio bisitatzen dira. Itsas Kontsulatuaren Dorretxean amaituko da ibilbidea (egun Ontzi Museoaren etxea dena).

Ibilbide historikoa Santa Klara uhartean: “uharte ezezaguna”.

Gaur egun Santa Klara uhartea Donostiako paisaiaren elementu garrantzitsu bat bada ere, gutxik ezagutzen dute sakonki. Altxor natural, paisajistiko eta historikoa bihurtu zaigu uhartea. Santa Klarara egingo den bisitaldiak aukera emango du ondare naturalaz gozatzeko, paisaiaren berezitasunak behatzeko, flora, fauna... Ondare kulturalera ere gerturatuko da eta historia, kondairak, tradizioak eta mantentzen diren arkeologia aztarnak eta itsasargia ezagutzeko aukera izango da. Proposatzen den ibilbide horrek denboran bidaiatzeko aukera eskaintzen du: uhartea desterratu eta koarentenan jartzen zituzten pertsonen bazterra, hiriaren defentsarako kokaleku estrategikoa... Farozain eta ontzi-jabeen istorio interesgarriak ere entzungo dira. Flysch-aren jarraipen bezala uhartearen formakuntza geologikoa ere aztertu ahal izango da eta zorte piska batekin, *podarcis hispanica sebastiani* sugandila ikusiko da.

*Udako programa. Ibilbidea baldintzatuta egon daiteke irlara eramaten duen ontzi-enpresak bartuko dituen erabakiengatik (eguraldiaren eta jende kopuruaren arabera erabakiak). Galdetu prezioak.

atzeko atetik



Paul BILBAO SARRIA

KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA

Aurreko egunean andereño Agurtzaneren galde egin nuen. 2009ko ekainean erretreta hartu, baina egun Alzheimerak jota dagoela esan zidaten.

Andereño Agurtzane bizitza osoa eman zuen ikastolan, eta lasai bizitzeko garaia iritsi zaionean, hara zer nolako amaiera ekarri dion patuak. Neuk ere irakasle izan nuen eskolaurrean andereño Agurtzane. Artean, euskarazko libururik ez eta *Ron Ron* izeneko gaztelaniazko materiala erabiltzen genuen, etxebizitza batzuen behealdean kokatuta zeuden gela ilun haietan. Fitxak eta fitxak egiten genituen, baina beti zegoen tartea abestietarako edota jolaserako. Andereño Agurtzane gure eskualdeko hainbat ume euskaldundu dituen beste eragile anonimo bat izan da.

Euskaldun eleanitza

Eskolaurrea amaitu eta Ikastola handira eraman gintuzten, eta esan behar dut zorte handiagoa izan genuela testu-liburuetan, SAIOKAren belaunaldikoa bainaz. Anekdotak bitxia ere badut horren inguruan; izan ere, urte haietan gure ikastolan irakasle zebilen eta hogeita hamar urte beranduago lankide izan dudana Xabier Mendiguren izan zen egileetako bat. Hiru hamarkadaren bueltan geure hizkuntzaren aldeko lanak batu gaitu. Ez da horren arraroa, izan ere, 21.000 km² besterik ez duen herri bat gara; edo hori irakatsi zidaten niri behinik behin; nahiz eta orain 7.234 km² duen herria dela irakastera behartu nahi duten.

OHOko hirugarren mailan, gaztelania. Astero hiruzpalau orduz eskola-orduan gaztelaniaz egin zitekeen irakaslearen haserrea piztu gabe. Soziolinguistikoki ingurune erdaldunean kokatuta dago gure ikastola, eta batek baino gehiagok arnasa-gune zuen gaztelaniako eskola. Dena den, are zirrarragarragoa izan zen OHOko seigarren mailan

ingelese ikasten hasi ginenean *Target English for EGB* liburu gorriarekin.

Orduan, inolako erreparorik ez zegoen Euskal Herria zein lurraldek osatzen zuten irakasteko. Beste ikastetxe batzuetako ikasleek ez bezala, guk Euskal Herriko orografia, klimatologia eta abarrekoa ikasten genituen, normaltasun osoz. Etxepare, Oihenart edota Axular nor ziren ikasten genuen; geure hizkuntzan eta bertan sortutako literatura, hain zuzen ere.

Egun, gaztelaniaz ondo moldatzen naiz, bai eta ingelesez zein frantsesez ere. Euskaldun eleanitza naiz, beste asko bezala, eta eleaniztasun hori ikasi nuen ereduari zor diot. Bestalde, Euskal Herria zein lurraldek osatzen duten badakit. Halaber, Euskal Herria juridikoki bi Estatutan dagoela, eta Espainiako Estatuan gure herria bi autonomia-erkidegotan zatituta dagoela dakit. Niri ez zidaten inoiz gezurrik irakatsi. Aitzitik, egia osoa jartzen ziguten begien aurrean. ●



Ingurunea ulertzeko, komunikazio erosoagoak izateko, gure gizatasuna osatzeko, behar-beharrezkoa deritzogu gorputz-espresibitatearen berreskurapena.

Imanol Urbietak



ISTORIO TXIKIAK MUNDU HANDIAK

Haur eta Gazte Literatura ezagutuz

HGL IKASTEKO ETA ELKARBIZITZARAKO ELEMENTU GISA

Aukera ona da literaturari buruz gehiago jakiteko. Esperientzia aktiboa izango da, lagungarria, irakurtzeko plazera ezagutzeko eta sendotzeko. Joeren berri izateko bi egun izango dira, metodologiak ikasteko edo egile eta pentsalari garrantzitsuen presentziaz gozatzeko. Eta hezitzaileentzat eta profesionalentzat leku aproposa izango da irakurketaren bidean orientazioa jasotzeko.

Zu etortzea espero dugu, zure zain gaude AlhóndigaBilbaon.

Zeren zain zaude? Egin klik www.istoriotxikiak.com helbidean eta matrikulatu.
Eta, gainera, kontsultatu programa osoaren eta jardueren xehetasun guztiak.

hó

AlhóndigaBilbao



ibaizabal

22
23
URRIA
BILBO